




ARRASATEKO
LGTBIQ+
DIAGNOSTIKOA



AURKIBIDEA

1.	HURBILPEN BAT.....	4
1.1.	GUZTIONTZAKO POLITIKA PUBLIKOAK.....	5
2.	LGTBIQ+ ERREALITATEETARA HURBILTZEKO LEHEN URRATS BAT.....	7
2.1.	SEXU-GENERO SISTEMA OINARRI	8
2.2.	LGTBIQ+ ERREALITATEAK.....	9
3.	JASOTZEKO ERREMINTAK.....	12
3.1.	IRITZI ETA BIZIPENAK ERDIGUNEAN.....	13
3.3.	IKERKETA HAU IRAKURTZEKO GAKO BATZUK.....	15
4.	DIAGNOSTIKOA	17
4.1.1.	NOLAKOA DA GURE HERRIA?.....	19
4.1.2.	NORTASUNA ETA INDARRA.....	20
4.1.3.	POLITIZAZIOA	20
4.1.4.	PUNKAREN SEHASKA.....	21
4.1.5.	ZUZEN ETA EGOKI	22
4.1.6.	KOOPERATIBEN ITZALA	22
4.1.7.	ZONIFIKAZIOA	23
4.2.1.	BIZI EREDU NORMATIBOA	26
4.2.2.	BAZTERKERIA ETA ONARPENA.....	27
4.2.3.	ZEIN DIRA GURE MUGAK?.....	29
4.2.4.	ERREFERENTERIK GABE.....	30
4.2.5.	JOAN-ETORRIAK	31
4.3.1.	BEGIRA! HEMEN GAUDE ETA!.....	34
4.3.2.	NORENTZAT DA SEGURUA?	35
4.4.1.	ESKAINTZA PROPIOAREN BEHARRA.....	41
4.4.2.	MARITXU KAJOI, AUKERAZ BETERIKO JAIA	42
4.4.3.	PUNK OII-A, NOREN SEHASKA?.....	44
4.4.4.	ZABAL DEZAGUN KIROLA	45
4.5.1.	HEZKUNTZA FORMALA.....	50
4.5.2.	HEZKUNTZA EZ-FORMALA.....	53

4.5.3. UNIBERTSITATEA.....	57
4.6.1. ARMAIRURA ITZULERA.....	60
4.6.2. ZER EGIN DAITEKE ETA NONDIK?	61
4.6.3. LEGEA AKUILU	63
4.7.1. HEMEN LGTBIQ+ MUGIMENDU BAT DAGO.....	66
4.7.2. MUGIMENDU FEMINISTAREN ERREFERENTZIALITASUNA.....	68
4.7.3. EMAKUME TXOKOA	69
5. AURRERA EGITEKO BIDEAK	71

1. HURBILPEN BAT

Zertarako LGTBIQ+ politikak?

1.1. GUZTIONTZAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Hamarkada batzuk pasa dira nazioartean LGTBQ+ komunitatearentzat mugarria izan zen Stonewalleko matxinadatik. 1968ko ekainaren 28 hartan, ordura arte zapaldu eta jazarria zen komunitate bat altxatu egin zen eta gainontzeko hiritar guztiek adinako eskubideak aldarrikatu zituzten. Gaur egun, ekainaren 28a askapen sexual eta LGTBQ+ komunitatearen ospakizun egun gisa ezagutzen dugu, baina, zenbat du aldarritik? Ba al dago ezer aldarrikatzeko?

Izan ere, orduko hartatik, LGTBQ+ komunitatearen aldarrikapen eta lorpen sozial, politiko zein legalek eraldaketa eta garapen nabarmen bat bizi izan dute. Hala nola, LGTBQ+ errealitateen ikusgarritasun eta ezagutza handiagoa da. Bestalde, aldarri horiek agenda politiko zein sozialean ere bere lekua lortu dute hein batean eta, arlo legalean ere, gainontzeko hiritarren eskubide berberak izatetik gero eta gertuago dagoen komunitatea da.

Errealitateak, ordea, hainbat ñabardura ditu, eta zenbat eta gehiago arakatu, orduan eta argiago ikusten dugu ustezko berdintasun formal edo sozial horietatik harago, aurreiritzi, jazarpen eta indarkeriek bere horretan jarraitzen dutela.

Bestalde, hamarkada gutxitan emandako pausu kualitatiboak gutxietsi gabe, agerikoa da, (egun bizirik dauden) aurreko belaunaldiekiko memoria eta erreparazioan ere hutsune handi bat dagoela.

Isiltasunak eta klandestinitateak pisu handia (izan) du oraindik eta, badakigu ikusi eta izendatzen ez dena ez dela existitzen. Horregatik, eta denok behar dugulako komunitate bateko kide izan eta bertan harremanak eraikitzea, errekonozimendu kolektiboa beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa da; baina ez hori bakarrik. Haratago joan behar gara, eta LGTBQ+ pertsonen bizitzak erdigunean egon ahal izateko baldintza kualitatibo eta integralak aplikatu behar dira.

LGBTQ+ pertsonen bizitzak aske eta gozagarriak izan behar direla aipatu dugu, askotan zaugarritasunetik, minetik eta indarkeriatik bakarrik irakurtzen direlako bizitza horiek, estigma batzuk indartuz eta ezinegona eragiten duen toki bat sortuz: ezleku bat. LGTBQ+ bizitzak beste prisma batetik irakurtzen hasi behar dugu, plazeretik eta gozagarriak izatetik, bizitzeko zilegi diren bizitza moduan hain zuzen ere. Indarkeriaren prebentzioa eta esku-

hartzea garrantzitsua da oso, baina beste korapilo batzuetara begirada zabaltzen hasteko ordua da.

Gainera, paradigma aldaketa bat eman behar dugu, aniztasunaren aldarrikapenetik harago joan eta erroko faktoreetan ipini behar dugu fokua, hau da, arauan. Aniztasuna errealitate zehatz bat da, denok gara askotarikoak eta ezberdinak, eta komunitate batean aberasgarria izan daitekeen arren, ez da aldarrikapen bat, ebidentzia bat baizik. LGTBIQ+ pertsonen haien bizitzak modu duinean bizi ahal izateko baldintza mugatzaileak identifikatu eta horiei jarri behar diegu limitea, araua ez delako zerbait abstraktua.

Azkenik, argi eduki behar dugu LGTBIQ+ politikak ez direla soilik LGTBIQ+ pertsonentzako politikak, baizik eta herritar guztientzako politika publikoak. Zergatik diogu hau? Inongo dudarik gabe, ikusi baitugu historikoki zapalduan izan den kolektibo batek araua, indarkeria eta zapalkuntzak identifikatzeko gaitasun berezia garatu duela, eta honek berak begirada fina ematen diola gizartean dauden bestelako zapalkuntza eta botere-harremanak identifikatzeko. Gainera, horiei aurre egingo dion edozein neurrik ekarpena egingo dio herritar orori.

Horregatik, hau gonbidapen bat besterik ez da, Arrasate beste begirada batetik begiratu ahal izateko eta, guztiontzako den herria eraiki ahal izateko.

2. LGTBIQ+ ERREALITATEETARA HURBILTZEKO LEHEN URRATS BAT

Marko teorikoa

2.1. SEXU-GENERO SISTEMA OINARRI

LGTBIQ+ bizitzak eta errealitateak ulertu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu, lehenik eta behin, sexu eta genero kontzeptuak modu orokor batean bereizi eta definitzea.

- **Sexua.** Gehienetan genitalitatea kontuan hartuz egiten den sailkapen bio-politikoa da, *arra/emea* bitartasunean laburtzen dena. Kasu batzuetan, beste parametro batzuk (hormonak, gonadak, kromosomikoak) ere kontuan hartzen ditu, beti ere, begirada bio-mediko batetik bitartasun hori indartu eta definituz. Kanpoan utzi eta zapaltzen ditu intersexualak (bi kategoria horietan sartzen ez diren gorputzak).
- **Generoa.** Eraikuntza honek ere bitartasuna indartzen du, hain zuzen, jaiotzean egotzitako sexuaren gainean kultural eta sozialki egotzitako balio sistema baten baitan, alegia, *gizon/emakumeak* sortzen ditu. Horien gainean eraikitzen da *maskulinitatea/feminitatea* binomioa ere, zeina askotan sexuari egotzitako balioekin argudiatzen saiatzen den (biologia, hormonak...) baina gizarteko arau estetiko bat ere eraikitzen duen: *genero adierazpena* (alegia, nire generoa nola erakutsi edo aditzera ematen dudan). Eraikuntza honetan, trans aterkipean (aurrerago definizio zehatza) dauden gorputz guztiak zapaltzen dira, alegia, bitartasun hori hausten dutenak, baita genero adierazpenaren bidez haiei egotzitako generoak traizionatzen dituztenak.

Sexua eta Generoa zer diren definitu ondoren, ikerketan zehar agertuko diren ondorioak eta kategoriak ulertu ahal izateko, garrantzitsua egiten zaigu ondorengo beste hiru kontzeptu hauek ere argitzea.

- **Genero identitatea:** Bakoitzak bere generoarekiko duen lotura, pertzepzio eta identifikazio maila da. Batzuk jaiotzetik ezarritako generoarekin eroso eta identifikatuak sentitzen dira, baina beste batzuk, aldiz, ezarritako generoarekin ez dira eroso eta identifikatuta sentitzen, eta genero trantsizio bat abiarazten dute haien buruak eta inguruak beste genero kategoria batean identifikatzeko. Jaiotzerakoan haien gorputzaren arabera ezarritako generoarekin eroso eta identifikatuta sentitzen diren pertsonak definitzeko “Zisgenero” hitza erabiltzen da, eta jaiotzean ezarritako generoarekin identifikatuta sentitu ez, eta trantsizio prozesu bat abiarazi duten pertsonak izendatzeko, “Transgenero” hitza erabiliko dugu.

- **Genero adierazpena:** Nork bere genero identitatea adierazteko duen era (Izena, estetika, gorpuzkera, ahotsa...).
- **Sexu-lehentasuna:** Pertsona batek beste genero batekiko, genero berdinekiko edo genero ezberdinekiko duen erakarpen emozional, erromantiko eta sexuala da. Baita beste inorekiko erakarpen emozional, erromantiko edo sexualik ez izatea ere.

Kontzeptua	Eraikuntza	Bazterkeria
Sexua	Ar / Eme	Intersexualitatea
Generoa	Emakume / Gizon (zis)	Trans errealitateak (+trabestiak, queerrak, drag-ak, emakume maskulinoak, gizon femeninoak, ez bitarrak, bestelako genero adierazpenak...)
Lehentasun edo desira sexuala	Heterosexualitate	Lesbiana Gay Bisexualak (+bestelako desira definizioak)

2.2. LGTBIQ+ ERREALITATEAK

Lan honetan, sailkapen eta zapalkuntza hauek guztiak definitzeko, LGTBIQ+ siglak erabiltzea erabaki dugu arau guzti horietatik at dauden gorputz, praktika eta kolektiboak izendatzeko. Ez inolako modu hertsian; bai, ordea, araua nolabaiteko disidentzia afektibo-sexualetik apurtzen duten horiek definitzeko.

Ez da hitz propio bat, sigla segida bat baizik, eta hizki bakoitzak errealitate ezberdin bati egiten dio erreferentzia.

- **Lesbiana (L):** genero bereko beste pertsona batek emozionalki, afektiboki, erromantikoki eta/edo sexualki erakartzen duela sentitzen duen emakumea.
- **Gay (G):** genero bereko beste batzuekiko erakarpen emozionala, afektiboa eta/edo sexuala sentitzen duen gizona.
- **Trans (T):** Gorputzaren arabera jaiotzean esleitutako generoarekin ados edo eroso ez, eta haien burua beste genero kategoriatan identifikatzen duten pertsonak.

- **Bisexuala (B):** genero batekiko baino gehiagorekiko erakarpen erromantikoa, afektiboa eta/edo sexuala duten pertsonak, ez derrigorrez aldi berean, ez derrigorrez modu berean eta ez derrigorrez maila eta intentsitate berean.
- **Intersexuala (I):** Medikuntzak kategorizatzen dituen sexu banaketa (ar/eme) bitarretik kanpo kokatzen diren gorputzak, haien genitalak, hormonak, ugal apartuak edota kromosomak ezin direlako kategoria bitar horietan kokatu.
- **Queer (Q):** "Queer" hitza aterki gisa ulertu izan da, zeinak orokorrean, identitate, orientazio sexual edo generoaren aldetik arautik at dauden identitate eta praktikak biltzen dituen. Historikoki, terminoa peioratiboa izan da, baina gaur egun, askok bere burua identifikatzeko eta komunitatearen barruan elkartzeko modu gisa erabiltzen dute.
- **Plus (+):** Bestelako aukera eta lehentasunak jasotzen ditu, hala nola, asexualitatea, beste pertsonetako erakarpen erotikorik ez duten pertsonak izendatzen dituen.

2.3. ANIZTASUNA VS ARAUA

LGTBIQ+ politikak diseinatzerako orduan, beraz, ez gara soilik LGTBIQ+ pertsonen desira, hautemate edo identifikazio indibidualez ari, baizik eta desira, hautemate edo identifikazio horiek gizartean kokatzen dituen leku eta botere harremanez. Hortaz, hizki horien atzean, hautu eta bizipen batzuez harago, berezkoa omen ez dena, antagonikoa, marjinala eta ezkutukoa gordetzen dira: alegia, arautik at dagoena.

Kasu honetan, arau sozial horri “zisheteroarau” deitzen diogu. Izan ere, heterosexualitatea araua dela esaten dugunean, ez dugu inoren desira indibiduala zigortu edo epaitu nahi, baizik eta gizartearen antolaketa eta harremanak arautzen dituen sistema moduan definitu nahi dugu, botere-harremanen eta genero-eraikuntzaren konplexutasuna ulertzeko.

Heterosexualitatea modu integralean ulertzea ezinbestekoa da. Diskurtso biologizistak medio, heterosexualitatea mendebaldeko medikuntzak kategorizaturiko ar eta emearen arteko harreman afektibo-sexual moduan ulertu izan da soilik, naturala, arrazionala eta berezkoa den jardun moduan gainera. Stéphanie Papinek (2014) esan bezala, heterosexualitatea erregimen politikoa da, norma delako. Heterosexualitatea gure jarreretan dago, gure harremantzeko moduetan, familian, eskolan eta plazerean. Berezkotzat ulertzen da heterosexualitatea, jaiotzetik dagoena, lehen galtzerdietako koloretik, familiako kideek

urte gutxirekin bikotea dugun galdetzetik, gure jardun afektibo-sexualetan genitalak plazer-bide bakar moduan ulertzeraino.

Beraz, norberaren desira indibidualetik haratago, heteroaraua da produzituak diren bi sexuak antagonikoak eta ezinbestean osagarriak direnaren ideia sostengatzeko mekanismoa, maitasunaren izenean, emakumeek dohainik zaindu dezaten eta bizitza sostengatu dezaten.

Beraz, pertsona batzuen beharrak erdigunera ekartzeaz ari bagara, horiek historikoki baztertuak izan direlako izan da eta, hortaz, beste zerbaitek hartu izan du erdigunea. Zentrala denak eragiten du boterea (Foucault, 1977), eta horren arabera arauak sortzen ditu (juridikoak, sozialak, moralak...), bertan sartzen ez diren bestelako nolakotasunak alde batera utziz eta, horrek, indarkeria sortzen du.

Hori kontuan izanik, aniztasuna aldarrikatzea ondo dago, bestelako gorputz batzuen bizitzak eta erabakiak ikusgarri bihurtzen direlako, baina harago joan behar gara, ezin da aldarrikapenaren erdigune izan. Denok gara desberdinak, aniztasuna errealitate material bat da, baina azpimarra ezin da norberaren nolakotasunetan jarri, baizik eta arautik ateratzearen praktikak suposatzen duen indarkerian. Anitzak gara beste batzuek arau zehatz eta zurrunk batzuk eraiki dituztelako, eta gure bizitzak bizigarriak izango dira, arau horiek sortzen dituzten zapalkuntzei aurre egiten badiegu. Hortaz, LGTBIQ+ pertsonen bizi baldintzak hobetu nahi baditugu, boterea eta indarkeria non eta nola eraikitzen den ulertu behar dugu, horiek aplikatzeko kanalak identifikatu, eta muga batzuk ezarri.

3. JASOTZEKO ERREMINTAK

Metodologia

3.1. IRITZI ETA BIZIPENAK ERDIGUNEAN

Diagnostikoa egiteko erabili den metodoa kualitatiboa izan da. Sakoneko informaziora iritsi eta parte-hartzaileentzat garrantzitsua eta adierazgarria den kontakizuna ezagutzea da metodologia kualitatiboa aukeratu izanaren arrazoi nagusia. Izan ere, guretzako, garrantzitsua da LGTBQ+ bizitzak, estatistika eta zenbakietatik harago, bizipen zilegi eta narrazio partekatuen bidez jasotzea, baita adierazten den hori ezagutza bezala kategorizatzea ere.

Bestalde, metodologia honek guk aurrez diseinatutako gidoi eta intereseko gaietatik abiatzea ahalbidetzen digu, baina baita bidean leku hartzen duten edo agertzen diren interesezko ikuspegi eta gaiak jorratzea ere. Hala, tokiko errealitatera egokitzeko metodo aproposa dela ikusten dugu.

Ikerketa teknikari dagokionez, **sakoneko elkarrizketak** eta talde zehatzekin (herriko eragileak, udal gobernu taldeak, udaletxeko langileak...) **lan-saioak** erabili ditugu. Gainera, **online galdetegi** bat ere ireki dugu, herritar desberdinen iritziak biltzeko.

Elkarrizketak aurrez prestatutako gidoi batean oinarrituta egin dira, nahiz eta, egoerak horrela eskatuta, irekitasuna eman eta galderak aldatu edo moldatzeko aukera ere izan dugun. Teknika hau erabilita parte-hartzaileekin hartu-eman zuzena sustatu da.

Lan-saioak ere aurrez prestatutako dinamika batean oinarrituta egin dira. Dinamiken helburua bakoitzak bere lekutik (udaleko teknikariak, herriko eragileak, politikariak...) ekarpen ahalik eta emankorrenak egitea izan da, baita LGTBQ+ kolektiboko pertsonen lekuan jarritz hausnartzea ere. Landu direnen artean, herriko LGTBQ+ pertsonen bizitzak hobetzeari begira sustatzeko neurriak eta ekarpenak izan dira, baita norberak bere herria beste ikuspuntu batetik begiratzeko aukera ahalbidetzea ere.

3.2. PARTE-HARTZAILEEN PROFILAK

Beheko taulan diagnosian parte-hartu duten pertsonen profilak zehaztu dira.

Profilak definitzerako orduan hainbat aldagai hartu dira kontuan, adibidez adina, norbanakoaren auto-definizioa eta bizilekua.

Norbanakoak

Herriko LGTBIQ+ kolektiboaren parte diren 14 norbanako elkarrizketatu edo formulario bidez haien iritziak jaso ditugu. Parte-hartzaile bakoitza eta bere testigantzak gakoak dira Arrasateren erradiografia ahalik eta errealea izateko.

Eragileak

Herriko eragileekin lan-saio eta elkarrizketak egin dira. Guztira 11 eragile desberdinekin bildu gara, bakoitzak bere arlotik edo begiradatik kontatzeko duena jasotzeko asmoz. Eragile horiek arlo desberdinetakoak dira: mugimendu sozialak, elkartegintza, hezkuntza, kirola, kultura, lan-arloa...

Udala

Udalari dagokionez, 4 lan-saio eta elkarrizketa egin ditugu arlo desberdinekin. Udalarekin duten lotura leku desberdinetatik izatea bilatu dugu, langile edo teknikari moduan batzuk, eta udaleko politikari moduan, besteak.

Ondoren, honela sistematizatu ditugu berriemaileak.

NOMENKLATURA	ADINA	AUTO-DEFINIZIOA / ARLOA	BIZILEKUA HERRIAN/KANPOAN
N001	Gaztea	Ez-bitarra	Herrian
N002	Ertaina	Gizon bisexuala	Kanpoan
N003	Gaztea	Transa	Herrian
N004	Ertaina	Pertsona	Kanpoan
N005	Ertaina	Gay	Herrian
N006	Heldua	Gay	Kanpoan
N007	Gaztea	Emakume bisexuala	Herrian
N008	Heldua	Gay	Herrian
N009	Gaztea	Bollera	Herrian
N010	Heldua	Gay	Herrian
N011	Ertaina	Gizon Bisexuala	Herrian

N012	Ertaina	Gay	Herrian
N013	Ertaina	Kuir-a	Herrian
N014	Ertaina	Marika	Herrian
E001		Mugimendu soziala	
E002		Herri eragilea / Elkartea	
E003		Mugimendu soziala	
E004		Hezkuntza	
E005		Kirola	
E006		Hezkuntza	
E007		Herri eragilea	
E008		Kultura	
E009		Kooperatibismoa	
E010		Hezkuntza	
E011		Hezkuntza	
U001		Teknikaria	
U002		Langilea	
U003		Politikaria	
U004		Teknikaria	

3.3. IKERKETA HAU IRAKURTZEKO GAKO BATZUK

Ikerketa hau interpretatzeko orduan, guretzat garrantzitsua da sistematizazioan hartutako erabaki batzuk partekatu eta irakurlea jakinaren gainean jartzea. Batez ere, bi dira irakurketa garatzeko momentuan lagungarri izan daitezkeen oharrak:

- **Anonimotasuna:** Elkarriketatu eta berriemaile guztiei adierazten diegun lehen gauza haien anonimotasunaren bermea da. Horregatik, nomenklatura bitartez sistematizatzen ditugu elkarriketa guztiak. Ondoren, diagnostikoaren gorputzean txertatzerako orduan, ematen duten informazioaren arabera, anonimotasun hori bermatzen den edo ez birbaloratzen dugu. Kasu honetan, erabaki dugu nomenklaturak ere kentzea, anonimotasuna ez ezik, bakoitzaren arlo edo ekintza

esparrua dena delakoa izanda, aurreiritzi eta aurreusteak ekiditeko asmoz.

- **Ahozko hizkuntza:** Elkarrizketen sistematizazioetan, guk transkripzio literalak egitearen aldeko apustua egiten dugu. Izan ere, hizkerek, josterek, erreferentziek, hizkuntzek edo haien arteko konbinazioek ere, diskurtso hutsean dagoen edukiaz gaindiko informazio bat ematen digu. Kasu honetan, Arrasate bueltako euskalkian jasoak izan dira asko, eta hala transkribatuak. Aldez aurretik esan, akatsak akats, esanak literaltasun osoz jasotzen saiatu garela. Bestalde, kontuan izan batzuk idatziz jasoak izan direla eta, akaso, batuan idatzita daudela. Azkenik, faktore gisa garrantzitsua da kontuan hartzea elkarrizketak kanpoko norbaitek grabagailu bat aurrean duela egindakoak direla, alegia, ohikoak direla euskalkien aldaketak, batura modulazioak edo hizkuntza aldaketak.

4. DIAGNOSTIKOA

LGTBIQ+ errealitateak, arloz arlo

4.1. BEGIRA DEZAGUN ARRASATE LEHENAGO EZ BEZALA

Gure herriko idiosinkrasiaren zertzelada batzuk

4.1.1. NOLAKOA DA GURE HERRIA?

Edozein ikerketa abiatzen dugunean, jakitun gara gure ikertzaile begirada ezinbestean izango dela kanpo begirada bat. Horrek, ikerketarekiko ez ezik, ikertu nahi dugun inguru, errealitate eta faktoreekiko ere ikuspuntu berezi batean kokatzen gaitu. Batetik, edozein errealitatearen argazkia ateratzeko berebizikoa den distantzia batean, zeinak herriko ohitura, tradizio, historikotasun, bizipen, korapilo, idiosinkrasia, min eta abarretatik at mantentzen gaituen, eta irakurketak egiteko mesedegarria zaigun. Bestetik, sarri, herri mailako harreman, botere, jakintza, funtzionamendu, aurrekari eta abarren ezjakin ere bagara, eta horrek ñabardurak galtzera garamatza.

Horregatik, gure kanpo begirada eta distantzia hori aldebiko aiztoa dela jakinda, guretzako ezinbesteko pausua izaten da edozein prozesu hasi aurretik herria bera ezagutzen saiatu eta bertako funtzionamendu, logika, autopertzepzio eta bizipenen mapa txiki bat egitea. Horrek helburu bikoitza du: batetik, kanpo begirada honetatik Arrasatez eduki ditzakegun uste eta aurreiritziak alde batera uzten saiatzea eta, bestetik, ikerketako protagonista izango direnak haien ahoetatik Arrasate bera deskribatzeko ariketa egiten jartzea. Gainera, momentu batez bada ere, ikertuak diren subjektu izateari utzi, eta haien herria beste ikuspuntu batetik begiratzeko gonbita luzatu nahi izan diegu. Alegia, elkarrizketatuek haien bizitzetaz, nahiez, minez edo aldarriez gain, herriaren inguruko iritzi eta ezagutzak dituztela jabetu eta hortik hitz egitea, ikerketa-objektu baino, aditu gisa kokatuz.

Izan ere, gure ingurua begiratzeko ariketa horrek begirada zorrozten digu ezinbestean, baina, batik bat, LGTBQ+ pertsonok, zisheteroaraua eta hortik eratorritako hainbat gizarte arau hausten ditugun pertsonak izanik, inork baino hobeto identifikatzen ditugu arau horiek zein gure herrietan betetzen dituzten funtzioak.

Horregatik, elkarrizketa eta lan-saio hainbat, LGTBQ+ gaiekin (ustez) zerikusi gehiegirik gabeko honako galderarekin abiatzen dugu: “Deskriba ezazu Arrasate edota arrasatearra, hiru hitzetan”. Ondorengo, saio horietan gehien azpimarratu diren kontzeptuei tiraka, herria beste begirada batetik begiratzeko aukera bat da.

4.1.2. NORTASUNA ETA INDARRA

Arrasateren inguruan galdetuta, nabarmen adierazitako lehen kontzeptu edota nolakotasuna da nortasun eta indar handiko herria dela. Egia da, hau bera ulertzerako moduan bizipen desberdinekin deskribatzen dela edota, adiera desberdina ematen diola norbanako bakoitzak, baina, oro har, herria ezagutzerako lehen parada honetan, pisu bereziko nolakotasun batekin topo egin dugula argi dago.

“Indartsua da, tipo nortasuna, nortasun indartsu bat dauela eta, osea eztakit, neri esatoztie bordiak garela edo, eztakit, dauela zerbait Arrasaten batzen gaitxuna ta uste dot dala indarra edo, onerako ta txarrerako”.

“Nortasuna, nik uste dot autoestimakin bezela, Arrasate dala autoestima oso altu euki dauen herri bat ta horregatik euki dauela gauza askotan... ba hori. (...)”.

Nortasun, indar eta autoestimu hori nork gorpuzten duen galdetuta, ordea, herritar guztien sentimendu izan daitekeen horrek, forma konkretu bat hartzen du, zehazki, maskulinitate eta boterearekin identifikatzen dutena.

“Nortasun gogorra barra fuertea, maskulinoa? Ba baita be”.

“Osea Arrasate famatua baldin bada, *por ser auténtico por ese carácter, da la Peña que manda en Arrasate*, ezta?”.

Indar horren jatorriaz ere galdetu ezkerro, “zulo” eta “itxitasun” kontzeptuak agertu dira sarri, hasiera batean kutsu negatiboa izan zezaketenak, baina gero eta gehiago sakondu, herriko izaeraren parte identifikatzen direnak.

“Zulo bat *en todos los sentidos*. Zulo bat gustetan jakuna edo gustauarazi jakuna edo, ez dakit, baie batzuetan argitasuna topetan zulotik urten ein bihe zarela moduen”.

“Bai, zuluak be emuten dau indarra batzutan”.

4.1.3. POLITIZAZIOA

Baina dudarik gabe, aipatutako indar, nortasun eta autoestimu horren atzean kolpean identifikatzen den nolakotasuna, herriak politikoki eta herri mugimenduari lotuta eduki duen ibilbide eta duen mobilizazio gaitasuna da. Nolabait, badago kontzientzia historiko hori eta, horrek, suposatu duenaren gaineko jakintza eta kultura.

“Politikoki aliantzak bilatzeko herri bat be badala puntu baten, nik uste badauela elkartasuna. Mobilizatzeko kapazidadia badauela”.

“Bai bai, Arrasaten herri mugimendu oso haundixa dau”.

“Eskuzabala, konprometitua, oso herri politizaua dalako edo”.

Eta, gerora, analisisan sakontzeko balioko digun lehen zantzu bat ere ematen digu kontzientzia honek, alegia, herriko kultura politiko horrek, eragina duela LGTBIQ+ pertsona gisa herriratzeko unean ere.

“Nik uste izen dala herri bat oso borrokalarixa zentzu askotan, eta horrek ein gaittu gu be garen modukuak edo indar bat atera dogu guregan, hori bizi izan dogulako, alde hortatik herri honek dauko zulo hortatik askatzeko beharra, *en general*”.

Hala ere, badago beste sentrazio bat, lan-saio desberdinetan, herriari lotutako gai desberdinekin (militantzia, punka, kooperatibismoa...) behin eta berriz azaldu dena. Batik bat, iraganari eta orduko hura idealizatu edo balioan jartzeari lotutako sentrazio komun gisan identifikatu dugu, edota, garai aldaketa bat adierazten duen elementu gisan.

“- Erreferentea, gauza asko historikoki gertatu izan dielako Arrasaten leengo aldiz, edo badaukelako fama hori be herri mugimenduan eta... (...) eta aldi berian igartzen dot *komo que* hori be itzali dala, bere egunian Arrasate izen zana, igual gaur egun, edo guk txikitan bizi izen doguna ba eztala Arrasate hori, ez? Eta jarraitzen dogula oroitzapen horren “Arrasaten gara eztaikit zer ta eitten dogu gauza pilo bat”, ta gero ez dakit zenbateraino dan erreala.

- *Vivir de la renta*, ezta?

- Bai, bai hori hori”.

4.1.4. PUNKAREN SEHASKA

Aurreko garai hobe horietatik, ezinbestean, punkera salto egin dute ia parte hartzaile guztiek. Aurrez aipatu gisan, punkaren inguruko bizipen eta sentrazioa ere, orainaldian aipatu arren, atzera begirako irakurketen bidez azaltzen da eta, gogortasun, itxitasun eta zurruntasun horri lotuta. Nahiz aldaketara irekia.

“Dauko fama, *así el rollo de ‘la cuna del punk’, noseke... como muchos titulitis...* eta horrek izaera moduan ere die oso karratuak, ta igual oin ari dia aldatzen, pentzau gurot”.

Edonola, segituan identifikatzen da, punka, sozializazioaren hain parte izan dena, LGTBIQ+ pertsona bezala ez ezik, emakume gisa genero arauak hausteko ere oso baliagarria izan dela, eta horrek izaera estetiko bat ere ematen diola herriari.

“Ni punketik jaio naiz, eta neri emun dusta askatasuna, ze bestela jantziko nintzeke *más de señorita noseke*... ta askatasun hori arropan behintzet aukeratzeko ze gure dozun edo zelan... Osea, *no pa romper géneros*, baña bueno behintzet ez naiz egon bihar eztakit zelan jantzitta, gauzak apurtuta... *yokese*”.

Hala ere, aurrerago, kultur arloa ikertzen dugun atalean, gai hau bereziki sakonduko da.

4.1.5. ZUZEN ETA EGOKI

Arrasateren herri izaera, nolakotasun eta balioak ulertzen ari ginela uste genuenean, ustez, aurreko balioei kontrajarria den kontzeptu bat agertu zen behin eta berriz, alegia, borroka, haustura eta punkari lotuta, zuzentasun eta egokitasuna aipatzen zela.

“Korrektismo bat dauela uste dot, osea, mozkortzen gara baina puntu baterarte, janzen gara eztakit zela baina puntu baterarte, edo, eitten dogu eztakit zer baina puntu baterarte, beti muga horretan, zuzena, korrektua”.

Eta zuzentasun horretan, seriotasuna edo norbere burua (herria, edo herriaren esanahia) serio hartzearen ideia ere azaldu da behin eta berriz.

“Bai, da herri bat ez dana auto-erridikulizatzen”.

Guretzako kontzeptu honek, espero genituen punka, borroka, politika eta gogortasunak baino garrantzia handiagoa hartuko du ikerketan zehar, izan ere, aurrerago garatuko dugun bezala, LGTBIQ+ bizitza eta pertsonen uneoro seinalatuko duten zerbait izango baita.

4.1.6. KOOPERATIBEN ITZALA

Azkenik, presentzia berezia eduki duen nolakotasun eta praktika bat dugu: kooperatibismoarena. Parte hartzaile gehienek aipatu duten zerbait da, dudarik gabe, baina, arreta eman digun zerbait da inork gutxi aipatu duela kooperatibismoa lan-arloari lotuta, baizik eta, beste balio sorta bati lotuta.

“Niretako Arrasatek dauko oso arraigo fuertia kooperatiba, lana, familia, pum...”

“Arrasatek badauko halako oinarri kristaue, humanista, kooperatibai lotua edo”.

Lan-arloari eta klaseari lotutako sakontze bat eskatu ezkerro, herria bera antolatzeko (bai klase ikuspegitik, bai zonifikazio aldetik) kooperatibismoa neurgailu gisa hartzen da eta, horren baitan sortzen da gainontzekoa.

“Ba azkar esateko, hemen egon die kooperatibistak eta zerbitzuetakuak, ez? Ta gu gara horrein seme-alabak, bakoitza berienak”.

4.1.7. ZONIFIKAZIOA

Ikerketa aurrera joan ahala, konturatu ginen, bilera, elkarrizketa edo lan-saio guztiak Erdigunean egiten ari ginela eta, aldi berean, solasaldi horietan, oso presente zegoela Arrasate ez zela hain justuki Erdigunea bakarrik. Auzoak existitu ez ezik, garrantzia bereziko espazio sozial zein bizitokiak zirela.

Aurrerago garatuko dugun espazio publikoaren inguruko ariketa eta solasaldietan azaltzen zen hau nabarmen, baina aurreratu ditzakegun bi elementu nagusitzen ziren: Batetik, Erdigunetik, Erdigunea hautematen dela espazio bizigarri eta seguruena gisan, eta, bestetik, auzoetatik, Erdiguneaz beste begirada bat adierazten dela.

“Nere ustez, eta denborakin konturatu naz, ze inportantia izen dan Erdigunetik apurtxo bat urtetia”.

“Musan nik ez dot sentitzen hainbeste begirada, [...] kalia ez naz holan mugiduko ya”.

“Nik ez dakit kasualidadia dan, baina nik Erdigunien ez dot ezauketan iñobe transiziño puntu baten dauena eta hortik kanpora ezagutzen dot pare bat”.

Beraz, ikerketa osoan zehar, Erdigunea ezbaian jartzen saiatu eta Arrasate auzoen begirada kontuan hartuta ikusten saiatu gara, nahiz, argi dugun oraindik asko dugula herriarekiko begiradan txertatzeko.

4.2. ARAU SOZIALAK, IKUSGARRITASUNA ETA MUGAK

Begira dezagun Arrasate LGTBIQ+ ikuspegi batetik

Herriaren inguruko lehenengo hurbiltze idiosinkratikoa ezinbestekoa da ondoren ikerketaren oinarria den LGTBIQ+ pertsonen errealitate, behar eta aldarrikapenetara igarotzeko.

Sarritan esan dugu LGTBIQ+ pertsonok begirada zorrotzagoa dugula, oro har, herriko idatzi gabeko arauak behatzeko, baina, ikuspegi horretan, badira zuzenean gure bizitzei eragiten dietela dakigun arau eta dinamikak ere. Horregatik, parte-hartzaileak LGTBIQ+ ikuspuntu horretatik haien herria behatzera dei egiten ditugu.

Izan ere, aurrerago, herriko errealitateak arloz arlo xehetzen saiatuko garen arren, garrantzitsua iruditzen zitzaigun lehen kolpe batean, norberak bere herriaz ikuspegi honetatik zituen bizipen eta iruditeria orokorrak behatzea.

Lehenengo esan behar dugun gauza da, oro har, parte-hartzaile ia guztiek Arrasate herri bizigarri gisa identifikatzen dutela, nolabaiteko askatasun eta normalizazio baten bueltan kokatzen den herri gisa. Ideia hau ere, bertakotasunari edo arrasatear gisan Arrasaten dugun lekuari lotuta ageri da.

“Al ser mi chico de aquí, no sé si es ventaja, pero a mí me parece un sitio fácil, yo muchas veces voy con mi chico agarrado de la mano por Arrasate, osea que no he tenido ningún problema, no me parece un sitio cerrado, me parece que es una ciudad bastante abierta, no hemos tenido ningún problema”.

Baina, nabarmena da, aurreko ariketaren ondorio, parte-hartzaileek ere argi dutela “LGTBIQ+ pertsonak” ez direla guztiak berdinak, beste hainbat faktorek eragiten dutela eta, akaso, horrek berak gehiago determinatuko duela herrian dugun lekua, LGTBIQ+ kolektibokoa izateak edo ez izateak baino.

“Bai, neurri baten bai, segun ze arrasatear zaren, halako LGTBI zara”.

Hala ere, badira identifikatzen diren muga eta oztopoak ere, eta horietan sakontzeko eskatu genien. Hauek dira elkarrizketatuek identifikatutako faktore nagusiak.

“Kontrara, kanpotik etorriko balitz norbait, uste dot Arrasate nahiko oldarkorra dala horretarako ixa edozein testuinguruan. Ezpada, leku zehatz batzuk igual? Edo jai konkretu batera ez bazatoz, uste dot kanpotik etorrita, nahiko oldarkorra izan leikela edonorentzat”.

4.2.1. BIZI EREDU NORMATIBOA

Aurrez aipatutako zuzentasun hori gogoan, zuzeneko ondorio bat da bizi eredu normatiboarena. Hau da parte hartzaileek identifikatzen duten lehen muga nagusia. Sarri, ez hainbeste besteen bizi eredu normatiboak traba egiten dielako, baizik eta bizi eredu konkretu hori gailentzeak haien beste hautu batzuk epaitzen dituela sentitzen dutelako.

“Askotan urteten dan ideia bat da jende bateaz bizitza ereduak edo ba garrantzia daukela, balixua daukela, ez? Ba, heteronormatibua dana, familia, pan, pan... eta gauzela adin baten gure inguruan bebai hori dana dauena. Eta hortik urteten zarenien, kuadrilla ofizialakin eta abar, askotan konpartitzen dozunien hori dala *lo que hay*, ba sentitzen dozu zure bizi eredu horrek baliorik eukiko ez baleu moduen”.

Eta askotan, bizipen hori, batzuetan babes bezala ere identifikatzen den kuadrillan bertan gauzatzen da.

“Kuadrilla? Kuadrilla be muga bat da. Oin arte igual pentsetan nauen zala espazio segurua, baina ez da. Oso kuadrilla hetero bat daukot, kooperatibista, klase maila oso altuko pertsonak, zeinak ez datozen bat sikiera nere bizitza estiluakin orduan, ez, ez da, baina ez da espazio segurua ez bakarrik nere identidadiagatik, *sino* nere bizitza estiluagatik”.

Heteroarauan eroso bizitzeak, askotan, kontziente ez garen bestelako zapalkuntza eta bazterkeriak eragin ditzake. Batetik, gailentzen eta betetzen den araua “normaltzat” jotze hutsak beste hautu batzuk kanpo uzten dituela eta, bestetik, heteroarautik at dauden errealitateekiko ezezagutza eta atxikimendu falta ere adierazten du.

“Nere inguruko jentiek ez daki ‘ez bitar’ hitzak zer esan gure dauen”.

Herri mailako normatibitate horrek ere, zuzentasun eta egokitasunari lotuta, LGTBIQ+ pertsonak identifikatzen duten beste muga batera garamatza, alegia, afektuen erakustaldira. Printzipioz, elkarrizketatuek ez dute arazorik ikusten, heteroarautik at dauden pertsonen arteko afektu adierazpenak gauzatzerako orduan. Baina badago egokitasunari lotuta errepikatzen den elementu bat.

“Obviamente yo siempre he dicho, una cosa es ser tolerante y otra cosa es dar la nota. Una cosa es hacerlo normal, algo cotidiano, darse un beso, un abrazo y otra cosa es hacer algo que ya se sale fuera de lo normal”.

“No, no se darían el lote tranquilamente, no lo he visto, no. En Arrasate no se puede hacer ese plan, no. En Arrasate tú puedes hacer el plan de darte el beso, el abrazo, algo muy normal, sencillito, pero darte el lote no, no creo que, hasta ahora no lo he visto y no se dan las condiciones como para eso”.

4.2.2. BAZTERKERIA ETA ONARPENA

Akaso, horregatik aipatzen dugu behin eta berriz LGTBQ+ pertsonak ez direla soilik hori, alegia, herriko beste logika, nolakotasun eta esangurek ere gurutzatzen dituzten herritarrek direla. Beste modu batera esanda, gainontzekoei eragiten dizkien herriko arau berberak gurutzatzen dituztela; akaso, indar handiagoz.

Izan ere, bazterkeria LGTBQ+ pertsonen iruditerian oso txertatuta dagoen zerbait da, izan indarkeria hori lehen pertsonan bizi izanagatik edota, ingurukoengan ikusitakoak ikasketa gisa funtzionatu duelako. LGTBfobiak asko du diziplinatzaile eta zigortzailetik. Eta hor, eskolako espazioak (aurrerago sakonduko da) irakaspen honetan paper berezia betetzen du LGTBQ+ pertsonen bizipenetan.

“Bereziki ikastolako beste pertsona bati egiten zitzaion bullyingak ‘que no sé me note’ ideia asko indartu zidan”.

“Ba ume garaian, ikastolan pertsona batek izugarrizko pertsekuzioa jasaten zuen”.

“Zorionez nire pertsonan gutxi bizi izan ditudan arren, begiradak, keinuak, komentarioren bat izan daiteke iraingarria/mespretxuzkoa (umezaroan zein gaztetan bereziki). Beste LGTB pertsonen egindakoa errazago identifikatzen dut, bullyinga, jazarpena, iseka, gutxiespena... sufritu dituzten lagunen kasuan”.

Honek, ia beti, komunitateko pertsonak onarpenaren ideia atzetik aritzera daramatza. LGTBQ+ komunitatearentzat, historikoki baztertu eta seinalatuak izan diren honetan, komunitatearen onarpen eta babesa bizirauteko oinarritzko behar eta desira bat izan da. Edota, beste era batera esanda, bazterkeriari beldur handia izan dion komunitatea da.

Honetarako, hainbat dira LGTBQ+ pertsonen garatzen dituzten errekursoak, izan bizirauteko, izan onartuak izateko edo, indarkeria ekiditeko. Herriaren nolakotasun orokor eta idiosinkratikoen analisisia egin dugunean, jada, badaude pista batzuk onarpen eta babeserako

LGTBIQ+ pertsonak ere erabiltzen dituztenak. Alegia, borrokalaria, indartsua, zuzena, kooperatibista... izateak, beste sexu-genero arau batzuen haustura leundu dezakeela.

Ikusi ditugu horietako hainbat mekanismo errepikatzen direla. Esaterako, eredu eta arau izan behar izaterena, “normala, arazorik ematen ez duena” eta arauak ondo betetzen dituenarena.

“Siento que tengo que ser un trans perfecto, para no dar más problemas de los que ya estoy causando, porque claro, yo ya voy en contra de tooodo lo que se supone que es normativo. Literalmente en contra, osea he pasau de un género a otro y ahora es que como que dentro de este género tengo que entrar perfecto. Encajando en el canon que supuestamente es un tío. No resaltar más de lo que ya estoy resaltando”.

“Tienes que ser gay, pero el gay perfecto cuál es ¿el que tiene pluma o no?”.

Bestalde, herriko beste estatus eta botereguneek ere konpentsazio lana betetzen dutela ikusi dugu. Adibidez elkartegintzan, militantzian edo lan arloan kokaleku jakin batzuk edukitzeak.

“- Nik daukat teoria bat garbi, adibidez, nik baldin badaukat ezaugarri bat da ni militante, bla bla naizela ezta?

- Bai, estatus bat.

- Bai, ta hori danori. Baina hor barruan be, euki dotenien nor izateko leku bat, modu bat, ez dakit zer, gero irten da marika, ta oso kontziente izen naz, onartua izen naizela baina behin estatus bat eukitta [...] Ta oso kontziente izen naz gero izen nazela onartua ta horrek beti pikau izen dust, ze izen balitz alderantziz? Beste leku baten nengoke? Igual baztertuta? Ez dakit”.

*“Nire bizipena da guztiz kontrakua: baztertua izen naz *komo marikon del pueblo*, eta gero ya, *tengo mi espacio de poder*, kontrako bidaia justu, eta nik zentzu horretan jarri dot “Arrasate segurua da, *segun con que gente esté*”.*

Eta gainerako pertsona guztiek bezala, baina kasu honetan, esanahi berezia hartzen duena, zure inguruko onarpen zuzena da.

“Eta positiboak ere izan dira. Muxu baten aurrean "ba zen garaia horrelako gauzak Arrasaten ikusten hasteko" bota zidan lagun batek, homosexuala nintzela ez zekien bat, pozez”.

4.2.3. ZEIN DIRA GURE MUGAK?

Bazterkeria horrek norberak bere bizitza, identitatea, sexualitatea edo espresioa mugatzea ere badakar. Muga horiek modu desberdinetan eman eta identifikatzen dira. Dударik gabe, badago kanpotik pertzibitzen den muga bat, baina ez da kasualitatea muga handiena kanpoan identifikatu ordez, nork bere buruan identifikatzea.

Honi LGTBIfobia barneratua deitzen zaio, alegia, autoerregulazio eta gorroto edo ezkutatzeko bat praktikatzea, pentsatuz, kontrakoa eginda (norberak bere burua aske adieraztea, adibidez) jasoko den indarkeria zilegi izango dela.

Honek bazterkeria horren introiektzio bat adierazten du, zeinak, azken unera arte egoeraren arduradun norberak bere burua identifikatzen duen. Bereziki esanguratsua izan da Arrasaten ere, adin, adierazpen eta bizipen desberdinetako pertsonen LGTBQ+ pertsona bezala bizi izan dituzten mugen inguruan galdetuta, zenbatek hartu duten muga horien ardura pertsonala.

“Muga nagusixena nere buruan egon dan beldur irrazionala, azeptaua ez izetekua”.

“Muga haundiena nire burua, nire beldurrak”.

“El principal límite cuando tenía unos 20 años fue aceptarme a mí mismo aun sabiendo que iba a tener el apoyo de mi familia y amigos”.

Kanpoko indarkeria eta zigorrak identifikatu ordez, gizartean errepikatzen den normalitate diskurtsoa barneratu, baina aldi berean, bizipenekin distortsio bat edukitzera garamatza. Izan ere, normaltasunaren diskurtsoa errepikatu arren, norbere bizipenek (batez ere, LGTBQ+ pertsona bezala ikusgarri izateko pausua ematen denean) kontrakoa esaten baitute eta, dudarik gabe, muga horiek oso materialak izaten jarraitzen dute askorentzat gaur egun.

“Limiteen artean behin eta berriz nire burua justifikatu beharra, azalpenak eman beharra, eta honi lotuta, gure gizartean emantzat ematen den heteronorma, denok hetero eta binario garenaren ustea kontrakoa esan ezean. Hori kriston limitea iruditzen zait, lehenengo eta behin gure buruekiko, zaildu egiten baitu norberaren izaeraren modu askeago baten esploratzea bizitzan hasieratik, eta gero kanpora begira, behin eta berriz kuestionatuak eta justifikatzera behartuak sentiarazten gaituelako, behintzat, ni”.

“Nik ez dakit sartuko nintzen transiziño baten, oin hasi explikaziñuak ematen hemen...”.

“¿Límites? Salir a la calle vestido libremente”.

4.2.4. ERREFERENTERIK GABE

Ikusgarritasunari eta erreferentzialtasunari lotuta, deigarria egin zaigun hutsune bat azpimarratu da behin eta berriz, alegia, gertuko erreferenteen faltarena. Hainbat eta hainbat elkarriketatuk modu argi eta zuzenean adierazi duten zer bait izan da.

“Arrasaten ez dut erreferenterik izan inoiz”.

Egia da, erreferente faltarena 30-50 urte bitarte kokatzen diren norbanakoen adierazpena dela, izan ere, belaunaldi helduagoen kasuan, pertsona batzuek bai, baina batez ere, leku batzuek berebiziko garrantzia izan dute haien narrazioetan.

“Herrian ez ditut pertsona erreferenteak izan. Baina garai baten Jai Zale taberna bai izan zen erreferentziazko lekua, segurua, gustora eta eroso sentitzen nintzen taberna bat.”

Eta, egia da baita ere, gazteenen kasuan beste era batera bizi dutela erreferentzialtasuna, gertutasunez, ingurukoengan ispilu egin eta elkar errekonozituz.

“Futbol taldeko neskak. Divina Comedia. Kuadrilako bollerak”.

“Herri mailan gaur egun nire LGBTQ+ lagunak dira nire erreferenteak. Duela hogeitaz urte ez naiz gai herriko erreferenterik identifikatzeko”.

Honi lotuta, sostengu garrantzitsuenak ere, inguru hurbilean identifikatu eta aipatzen dituzte ia gehienek, lagunei lotutako babes sarea osatzen dutenak.

“Sostenguak, nire lagunak”.

“Eta sostenguak nere ingurua (gurasuak, lagunak...). Dana ondo dauenan reafirmaziua euren partetik (ez esanez bakarrik baña akzinuekin demostretan)”.

“Helduleku eta sostenguak, argi eta garbi, inguratzen nauen jendea, lagunak, kolektibotako jendea, lankideak...”.

“Heldulekuak: lagunak eta militantzia”.

“Lagunak, batez ere emakumezkoak”.

4.2.5. JOAN-ETORRIAK

Azkenik, bereziki begiratu nahi izan diogu herri baten bizigarritasuna LGTBQ+ ikuspegitik neurtzeko erabili ohi den faktore bati; hain zuzen, sexilioari. Alegia, norberak bere jaioterri, esparru natural edo bizitokitik alde edo ihes egin beharra izatea, haren identitate, sexu lehentasun edo genero adierazpenak askatasunez garatu ahal izateko.

Modu askotako sexilio mugimenduak daude. Izan daiteke kontzienteki itogarria edo indarkeriazkoa den testuinguru batetik ihes egiteko beharra edota, izan daiteke, behin beste arrazoi bat dela medio (adibidez, ikasketak) kanpora egitea eta behin bertan, jatorrizko testuinguruaren indarkeriaz jabetzea. Hainbat izan dira horri lotuta jaso ditugun bizipenak.

“Berez ez nuen identifikatu horrela, gehiago ikasketei lotuta edo, baina gero konturatu nintzen sexiliotik bazuela horrek bastante”.

Gainera, denbora eta espazio desberdineko mugimenduak ematen dira. Adibidez, izan daiteke kanpoan bizitza berri bat hasteko bidea egitea eta jatorrizko herriarekin harremana etetea, edota, denbora baterako joan, bertan “askatasunez” identitatea garatzeko aukera izan eta, ondoren, bertatik ahaldunduta herrira itzultzea.

Badira bestalde, aldi baterako sexilioak ere, esaterako, aisia edo ligatzeko esparruen bila ematen direnak.

“Es algo que cuando yo vine aquí lo echaba en falta un poco, no te miento, el tener un sitio así como tal, pero lo que hacíamos era que íbamos normalmente a Bilbao a los bares, cuando queríamos ir de marcha y esas cosas, salir por ahí...”.

Edonola, elkarrizketatutako pertsona guztiek egin dute unerren batean sexilio mugimenduren bat haien desira, identitate, praktika edo genero adierazpenak garatu eta bizitzeko asmoz.

“Bai zalantzarik gabe. Bakoitzaren ezaugarri, bizi zirkunstantzia eta baldintzen arabera oso zaila izan daiteke Arrasaten norbera den moduan bizi eta adierazi ahal izatea. Horretaz gain, beste pertsona heterodosidente/genero disidenteak ezagutu eta horiekin harremanak eraikitzeke aukerak askoz mugatuagoak dira”.

“Kanpoan bizi izan naizenean askoz errezagoa da mutilak ezagutzea, ligatzea, sexua eukitzea eta nola ez, zure bezelako pertsonak aurkitzea”.

“Lehen igual oin baino gehixau, baña jentia, normalian, kanpora jutiak emuten dauen anonimato puntu horrekin errexau zabaldu leikela pentzetan dot”.

“Orokorrean bai, ez eksklusiboki horregatik baina hiri handiangoek inguruak ezarritako "korseta" apurtzeko aukera errazten duen sentrazioa dut, garai batean behintzat. Nire garaian erreferente positiborik ez nuen ikusten, eta homosexualitatea insulto bat zen”.

Kasu honetan, alderaketan jarri nahi izan dugu fokua, alegia, zein desberdintasun topatzen dituzten sexilio mugimenduak egin eta, adibidez, herrira itzuli direnean.

“Arrasate zapaldu nauen, ta ez dakit zenbat urte pasauko zien, baina denpora asko, ta izen zan herrixakin topatzia, ez oso aldautu zentzu horretan”.

“Itzuli garen batzuk ari gara berreraikitzen komunitate hori, lagun sare moduko bat, baina oraindik oso nuklearra da, eremu eta soziologia oso konkretuei lotua. Beste kontzientzia batetik ari gara lan hori egiten, ahalduz maila batekin... baina gure eta belaunaldi gazteagoen artean ez dakit arrakala handiegia ez ote dagoen. Hau da, haur/gazte/nerabe arrasatear batentzat zaila da oraindik Arrasaten bizi eta etorkizun desiragarri batekin amestea. Jatorrian arazoak eta errealitateak berdina izaten jarraitzen du”.

4.3. NORENAK DIRA KALEAK?

Espazio publikoaren irakurketa bat

Espazio publikoa definitzen dugunean, herri baten erabilera, nolakotasun eta ondasun kontzeptuekin lotu ohi dugu; alegia, herritar guztiek igaro, erabili eta bertan harreman sozialak eta bestelakoak garatzeko espazio gisa. Definizio honek, ordea, hainbat ñabardura eskatzen ditu, batik bat, LGTBQ+ ikuspegi batetik ari garen honetan.

Izan ere, espazio publiko gisa definitzen ditugun horiek (kale, plaza edota parkeak, esaterako) historikoki, ez dira guztientzako erabilera eta bizipen berberak izan dituzten espazioak izan, aski analisi egin dira, emakume, pertsona arrazializatuak, aniztasun funtzionala duen pertsonak... espazio publiko erabiltzeko dituzten zailtasun, mugimendu-askatasun eta mugez, esaterako. LGTBQ+ kolektiboari dagokionez ere, espazio publikoarekiko harremanean hainbat nolakotasun aurkitu ditzakegu.

Bestalde, ikus dezakegu, gure herri, hiri eta auzoetako espazio publikoak bertako arau, ohitura, erabilera, aisia, zilegitasun, garrantzia, nagusitasun eta segurtasunaren arabera, une oroko negoziaketa sozialen ondorio direla. Historikoki tentsio horien eraldaketak ikusi ditugu bertan gauzatzen, edota, bestelako eraldaketa sozialek espazio publikoan izan dute isla.

LGBTQ+ komunitatearentzat, beraz, bereziki borrokatu beharreko esparrua izan da espazio publikoaren konkista, plano sinbolikoenetik, materialenera doana, baita, borroka bera adierazteko lekua ere.

Bide horretan, ordea, komunitateko kideek oso argi dute: kalea indarkeriari edo segurtasun faltari lotutako espazio bat ere bada eta izan da. Ez da kasualitatea LGBTQ+ komunitateak, historikoki haien artean bildu, harremandu, ligatu edota, besterik gabe, lasai bizitzeko lekuak indarkeria hori ekidin zitekeen kaleetatik urrun sortu izana.

Hori kontuan izanik, Arrasaten, egun espazio publikoarekiko harremana aztertu nahi izan dugu, batik bat erabilerari, idatzi gabeko negoziaketa zein araei eta aisiari lotuta.

4.3.1. BEGIRA! HEMEN GAUDE ETA!

Lehenengo, adierazgarria egin zaiguna aurrez ulertzen ari ginen herriaren nolakotasun eta zonifikazioari lotuta agertutako pertzepzio bat da; alegia, espazio publikoaz galdetzean ia guztiek espazio publiko Erdigunearekin lotu dutela, nahiz eta, batzuen kasuan, ez den haiek

gehien erabiltzen duten espazioa. Baina argi ikusten da “erakusleiho eta ikusgarritasun” funtzioa Erdigunean ematen den zerbait dela, bertan negoziatzen dela, nolabait.

“Musan nik ez dot sentitzen hainbeste begirada, [...] kalia ez naiz holan mugiduko ya”.

“Erdigunien nire bikotia ikuketia asko kostauko litxakit eta errazago ikutuko nauke auzuan”.

“*Sinplemente* ya espazio bat konpartitzerako momentuan, lehen komentau dogun zuzentasun horretatik *pues* maila estetikua adibidez ya, ba urten ezkerro, begirada aldetik edo, bai egongo dala”.

Beraz, onartuko badugu espazio publiko eta ikusgarri bezala Erdigunea dela, non daude LGBTQ+ pertsonak? Oro har, ikusgarritasun falta da behin eta berriz aipatzen den zerbait.

“Nik esaten nauen, ezinezkoa da hemen 250 pertsona egonda, pareja bat bera bez homosexuala ez izetia”.

“Si es cierto, que yo le he preguntado a mi chico, ‘oye aquí no hay, para ser una ciudad universitaria, y obviamente por estadística, porque hay mucha gente flotante, y entre la gente flotante más posibilidades hay de que haya gays y no los veo’.

Aipatu dugun moduan ikusgarritasuna berebiziko faktorea da erreferentzialtasuna lortzerako orduan, eta, izendatzen ez dena existitzen ez dela esan ohi den bezala, ikusten ez dena ezin da irudikatu ere egin.

“Ez nauen garatu beste aukera batzuk edo... Arrasaten be ez nauen ikusten, imajinau oin dala 20 urte ez bitar izatia... ez euen hiztegixen be!”.

4.3.2. NORENTZAT DA SEGURUA?

Espazio publikoaren erabilerari lotutako beste kontzeptu bat da seguru/ez-seguru dikotomiarena. Kale, herri edo hirien segurtasun maila neurtzerako orduan, normalean, delituen salaketen datuak hartzen dira kontuan. LGBTQ+fobiaren kasuan, ordea, neurgailu horrek ez digu sarri errealitatearen isla fidela egiten. Batik bat, salaketen maila oso baxua delako. Hainbat dira horren arrazoiak, izan polizia eta lege-prozedurekiko mesfidantza, berauek delitu horiek gorroto-delitu bezala izendatzea edo ez, izan beldur edota lotsak eta, arrazoi nagusiena, bizitakoa eraso gisa identifikatzeko gaitasun falta.

Arrasaten ere, ez dago LGTBfobia arrazoi duen salaketen erregistrorik azken urtean, ezta akaso azken urteetan ere.

“Guk hemen oso gutxitan zabaldu izan ditugu, eta LGBTI+fobiaren inguruan, buruz ari naiz, baina ez dakit inoiz egin dugun”.

Orduan, horrek esan nahi du Arrasateko kaleak espazio seguru gisa bizi dituztela LGBTIQ+ pertsonak? Zeren baitan neurtzen dute segurtasuna eta segurtasun eza? Nola baldintzatzen du egunerokoa bizipen honek?

Orokorrean, Arrasate leku seguru gisa definitzen dute elkarrizketatuek, esperientzia orokorrak horiek baitira.

“Nahiko herri segurua da orokorrean. Behintzat nik ez dut inoiz arazorik izan”.

“Arrasate orokorrean leku seguru eta erosoa da LGBTIQ+ komunitatearentzako”.

Segurtasun eza indarkeriarekin lotzen dugun zerbait da, indarkeria fisikoarekin, zehatzago esanda. Baina honek badu beste alderdi makur bat; izan ere, gorputz desberdinek beldur hori sentitzeko ez da beharrezkoa indarkeria zuzenean erabiltzea, mehatxuarekin nahikoa baita. Alegia, indarkeria jasan dezakegun usteak eta aukerak berak, jada, espazio bat desberdin bizitzera eramango gaitu, eta beldurrak kontrol eta disziplina mekanismo gisa funtzionatu dezake.

“Orduan nik nauken bilddurra, cómo reaccionaría la gente, neri emuteusten bilddurra porque yo todo lo que sabía de la gente trans eta de la gente LGTB en general es que es una minoría eta que la gente lo pisa, orduan klaro, salgo a mi pueblo, que bai, nire lagunak dauket, nire familixia, pero también hay gente desconocida, también hay gente que no sé cómo piensa, también hay gente que vota a X en mi pueblo...! Orduan bilddurra nauken bebai qué me podría haber pasau. Osea ni... gabetan eta holan, me daba como miedo”.

“Egixa da, adibidez, behin onartu nauenien nire burua eta ninguenien ya bastante gertu transizioa hasteko momentutik, ikusten nauen notizia bakoitza LGBTI atakeren bat edo LGTBfobian inguruko atakeren bat, agresiño bat, ikusten nauen nere burua, izen neikiela ni edozein egunetan”.

Horregatik agian, segurtasunari lotuta gehien errepikatu den ideia izan da inguratzen gaituen jende eta giroaren araberako zerbait dela, eta ez espazio konkretuena. Alegia, inguruan

dauden pertsonak determinatzen dutela babesa eta segurtasuna edo berauren falta eta, baita, gure antza dutela uste dugunekin identifikatze horrek segurtasuna ematen digula ere.

“Nik lotu dot dana ordutegixekin, anbertuarekin, egunez behar bada lasai zoziek leku askotara, baina gabaz edo... oso diferentia izan leikela leku bera”.

“Gaztetxea, Erdialdeko taberna... toki euskaldunetan seguruago sentitzen naiz. Eta pertsona euskaldunekin ere. Baina nire pertzeptzioa besterik ez da”.

Eta hautemate horietan guztietan, beldurretan, eta aldi berean indarkeria fisikora heldu gabe, Arrasateko LGTBIQ+ pertsonak oso gogoan dituzte herrian bertan bizitako indarkeria eta beldur-une desberdinak, normalean plano sinboliko, komentario eta botere adierazpenetan egikaritzen direnak.

“Deserosoa edo alerta puntu bat toki berri batetara eta pertsona ezezagunekin egotean izaten dut, baina ez beti. Pertsonak esaten duten gauzen arabera homofobia edo komentario matxistak daudenean pizten zait”.

“Besarme con mi pareja y escuchar risas escandalosas para que nos diéramos cuenta de que se estaban riendo. La mofa constante sobre todo con gente del colectivo con pluma o algo que fuera a entender que pudiera ser gay”.

“Orokorrean komentario negatibo asko entzutea homosexualitateaz eta gaizki begiratua izatea eskutik helduta kalean joateagatik”.

Gainera, askok aipatzen duten segurtasun sententzioa “dagoen jendearen arabera” izaten dela eta, horretan sakontzeko eskatu diegu, alegia, zein dira segurtasun falta sentiarazten dieten pertsonak, giroak edo profilak? Eta, ikusi ahal izan dugu, izendatzaile komuna, maskulinitate hegemonikoari lotuta ageri dela.

“Niretzat lekuek baino pertsonak sortzen dute deserosotasuna eta inseguritatea. Tabernan liburutegian, parkean, gimnasioan... lasai egon naiteke nire senarrarekin baina segituan antzematen dugu "matxiruloak" eta hor bai ez gara eroso sentitzen eta gure jarrera ere, bion artekoa, desberdina izaten da”.

“Mutil nerabeak edo mutil kuadrila haundiak dauden tokietan”.

“Me da más cosa edo miedo, hasi nintzanian trantsiziñua en un grupo de tíos que antes. De hecho, gaur egun tengo esa incomodidad de que no sé cómo actuar eta no sé cómo sentirme del

todo horrekiko. Quiero normalizar a nivel social, ze supuestamente nire lekua da hemen, con otros tíos, baina nik nire burua ez dot ikusten seguru”.

Esparru honetan ibilbide luzea duen hirigintza feministako premisak dioen gisan: “Emakumeentzako seguru den espazioa, denontzat da seguru”. Bada, gauza bera esan genezake LGTBQ+ pertsonekin. Baina zer gertatzen da seguru bai, baina eroso ez gauden lekuekin? Noiz hasten da bata zein bestea?

“Edo beste bollera batekin ligatzerako orduan? Seguru da Arrasate en general? Eta etorri jat, ez? Ba ni nire nobixiakin, ligetan, ta han mundu dana guri begira. Osea nire auzoan ta hori ez da, niretako ni seguru sentitzen nintzen, euzelako nire lagunak ta babes bat dauketelako, baina klaro, ez da leku eroso bat”.

“Nik hartzen dot agresiño moduan adibidez, que tú me medio obligues a decirte cosas que yo no quiero. Nik hasieran enakixen limitiak jartzen, nik enakixen, que eso era mi derecho de decir no, ta azkenian, nintzen como una cosa que acababa de nacer, por así decirlo eta de repente me encuentro que me hablan nose quien que es más mayor que yo, que nunca he hablau con esta persona, que me pilla de fiesta eta abar eta insistitzen. Orduan, klaro, agresiño horretan no me han salvau más que mis amigas porque sabían que estaba incómodo no porque sabían que era una agresión”.

“Cómico pues cuando me puedo vestir de una manera que no lo hago todos los días”.

“Me daría igual salir del armario todos los días siempre y cuando fuera, fuera de mi pueblo eta si no me llegara ningún tipo de estelas. Me daría igual salir del armario, trabajar desde ahí... Porque nire herria es zona segura también y el hecho de exponerme, uste dot que nire herrixan ya he encontrado una comodidad que no quiero que cambie”.

“Incómodo la calle ya que todavía hay personas que nos ven de manera denigrante y se nota”.

Hala ere, bizipen guzti horiez gain, bada hainbatek aipatutako zerbait, espazio publikoa beste era batera erabiltzera eramán dituen. Hain zuzen, hainbatek aipatu dute ahalduztze eta kolektibizazio zein politizazio prozesu eta praktiken ostean, kalea, herria eta plaza beste modu bat hartzera iritsi direla.

“Talde honek edo ein doten ibilbidiak, espazio honek [Morbor] eman dusten segurtasunak igual nik pertsonalki estrapolatzen dotela herrian nik daukaten lekuai ta nik ya gaur egun, nik, sentitzen dotela espazio seguru bezela ia edozein leku, nahiz eta pixkat oldarkorra izen

badakidalako, *pues* atzetik babes bat dauela eta igual nik bai ein dotelako ibilbide bat ta sentitzen naizelako kapaz igual beste pertsona batek ez daukan lekutik ein nekiola aurre, alde zaharrien gu ibiltzen garen tabernetan, inguruen, badaukotela segurtasun hori, nahiz ta batzutan mehatxuak egon”.

“Nik uste dot nauela bizitzako momentu baten nun erosua dan Arrasatetik mugitzia nazen moduan, berdin jatela nola noian jantzita, edo horretarako prozesu bat einda, ta taldian”.

4.4. ZER OSPATU, HURA GOZATU?

KULTURA, JAIK ETA KIROLA IRAULTZEN

Espazio publikoaren erabileran, kalea, plazak eta abarrak ibili, bizi eta partekatzearen inguruan aritu gara. Sarri, erabilera horren bueltan arau sozial idatzi gabeak aipatu ditugu, eta, gainera, erabilera hori modu indibidualean ditugun bizipenetatik neurtu dugu. Baina, oro har, espazio publikoa, modu kolektiboan erabili, partekatu, hartu eta bizi ohi dugu. Horiek forma konkretu batzuk hartzen dituzte, esaterako, jai, erritu, aisia, kirol eta kultur adierazpide desberdinenak.

LGTBIQ+ komunitateak ere, kultur sorkuntza, aisia eta ospakizunetan, kultura edo subkultura propioa garatu, bizi eta partekatu izan du historikoki. Horrek berebiziko garrantzia izan du kolektiboan, elkar ezagutu, arautik at dauden espresioak modu askean adierazi eta komunitatea indartzeko, adibidez. Hala, hegemonikoa den kultur adierazpen heterosexistatik alternatiba eta zirkuitu propioak sortu izan ditu.

Ikerketa honetan, beraz, batetik Arrasaten LGTBIQ+ kulturari lotutako aisia, espazioak eta erabilerak ezagutu nahi izan ditugu eta, bestetik, LGTBIQ+ komunitatea herriko gainontzeko aisialdi, kultur zein kirol esparruetatik at dagoen komunitatea ez dela kontuan izanik, horiek nola bizitzen dituzten jakin nahi izan dugu.

4.4.1. ESKAINTZA PROPIOAREN BEHARRA

LGTBIQ+ kultur espazio, eskaintza edo adierazpidez galdetuta, oso gutxi izan dira gogoan izandako erreferentziak (batik bat Zinegoak zikloa, erakusketaren bat, hitzaldi solteren bat...) eta, gehiago izan dira identifikatutako hutsune eta beharrak. Adibidez, gau eta tabernei lotuta, espazio propioak izan ez arren, espazio ireki gisa identifikatu dira hainbat.

“Pero si es cierto que en Arrasate aunque no haya una oferta nocturna de LGTBI o que se haga visible que son gayfriendly como se puede ver en algún lado, me parecen bastante tolerantes, son bastante tolerantes, sí”.

Iraganari begira, ordea, hainbat espazio azpimarratu dira behin eta berriz, batzuk, berariaz LGTBIQ+ espazio gisa bizi zituztenak, eta besteak norbanako batzuentzat kolektibizazio eta garapen pertsonalean garrantzia berezia izan dutenak.

“Arrasaten azkenengoz bizi izan nintzen garaian (15 urte inguru dela), hainbat taberna, bereziki Jai Zale taberna”.

“Lekuak: Biona taberna, Jai Zale taberna eta elkartea, Udalaiz taberna, Gaztetxeak...”.

Gaur egun, ordea, nagusitzen den sententzio orokorra da Arrasaten dagoen eskaintza kultural zein aisiarako aukera LGTBIQ+ jende batentzat ez dela zertan erakargarria izan.

“Nik adibidez kanpoko lagunak eta, ez nittuke gonbidatuko *un dia cualquiera* Arrasate batera, ez dot ikusten erakargarritasun bat jende horrendako, baina bai adibidez, Altxa Lili dagoela asteburuan, edo holako egun baten...”.

Baina, esan bezala, LGTBIQ+ pertsonak herritarrak ere badira eta baita herriko erritu, jai, ikuskizun eta ospakizunen parte ere. Arrasate definitzerako orduan aurreratu gisan, herriko idiosinkrasia eta ohiturek garrantzia handia dute izaera kolektiboan eta, horregatik, herri mailako izaeran garrantzia eta aipamen berezia duten hiru kasuren azterketa egin dugu, zeinak uste dugun hainbat gako eman ditzaketela bestelako esparruetan gertatzen dena ulertzeko eta, baita, praktika on edo aukerak identifikatzeko ere.

Hiru ospakizun, kultura edo praktika horiek aukeratzerako orduan, beste behin ere, elkarriketatuen behar, kezka edo azpimarratutako espazioak hautatu genituen. Eta, hala, hiru arlo hauei begira jarri gara: Maritxu Kajoi jaiari, Punk Oi! eszenari, eta, azkenik, kirol klub eta zerbitzuei.

4.4.2. MARITXU KAJOI, AUKEZAZ BETERIKO JAI

Hainbat dira herri maila eta auzoetan ospatzen diren festak, baina Maritxu Kajoi bereziki aipatu dute elkarriketatutako zein lan-saioetako kideek. Izan ere, hainbat erritu-elementu ditu, bereziki interesgarriak direnak tradizioaren zein hausturaren ikuspegitik begiratzeko.

Ez da kasualitatea elkarriketatutako LGTBIQ+ pertsonetako hainbatek bizipen traumatikoak edo errefusezkoak adierazi izana jaiarekiko. Arrazoiak hainbat badira ere, janzkerarena da aipatutako elementu esanguratsuena, alegia, “dotore” janztearen atzean, genero arau zurrinak hauteman izan dituztela askok; horrek pertsonalki lekuz kanpo edo deseroso sentiarazteaz gain, oso jai “heteroa” bezala bizitzera eraman ditu.

“Maritxutatik ihes eitten nauen nik. Total. Maritxu Kajoi, Santamasak eta hola *sin mas*, hasieran nerabezaroan zan oso gogorra, eta nik nere amak ekartzen dustenien *la fotito* hor, gona batekin, oin da eguna nere amak esaten dauena ‘ai ama!’, baina bai zan *como*, ez euen beste aukerarik, hor, gona batekin kaletik lorak saltzen”.

“Genero rolak indartzen ditu. Osea neskak doiaz ule luzia, lixo... beltzez, eskotauta...”.

“Orokorrean heteronormatiboak eta binarioak dira. Eztakit baloratzen zenbateraino diren seguruak, baina genero disidentziekiko berez erosoak ez direla, eta beste leku batzuetatik parte hartzea behintzat biolentzia dela esango nuke”.

Gainera, espazio publikoaren inguruko atalean aipatu gisan, indarkeria jasotzea baino, indarkeria jaso ahal izatearen mehatxu edo susmoak ere, kasu honetan erregulatzailerik gisa funtzionatzen du, alegia, janzkerari lotutako genero arauak hausteko muga nabarmen bat eraikitzen duela.

“Eske ez dot imajinatu gure Maritxu Kajoi baten, segun zein doian zelan jantzita ze jasango leuen, ze barbaridade. Ni segun ze tabernatan ez nintzake sartuko”.

Hala ere, hainbat dira jaiei eraldaketarako potentzialitatea ikusten diotenak, hain zuzen, janzkerari zein jarrerari lotutako eraldaketa bat, jada nabaritzen hasia dena.

“Nik uste dot alde batetik indartu eitten dauela, baina badazela beste korrante batzuk zelabait erabiltzen dauena hori apurtzeko, dauko bi bertientiak nire ustez”.

“Iruditzen jat azkenengo urtietan dezenteko presentzia eukitzen dabilela LGTBI+ kolektiboko jentia Maritxu Kajoi egunian, aurten bereziki atentziñua emun dust zenbat jente ikusi doten nabarmenki adierazten ‘ni ez naiz kokatzen ez hemen ta ez han’, ulertzen? Alde batetik esango neuke oin arte ezetz, baina orain esango neuke giro bat erain dauela”.

“Maritxu Kajoin hainbeste lanketa ein leikez...! Eske Maritxu Kajoi da *todo un temazo* e? Baina ez bakarrik LGTBI+ ikuspegitik, eske, rolen kontua... osea dana. Dana. Kontsumua...”.

Izan ere, espazio seguruaren kontzeptuaren baitan, genero adierazpideez harago, ia guztiak ados daude jaiak gizartearen isla direla, baita bertako jarrerak ere. Akaso, espazio horiek ez seguru bilakatzen dituztenak bestela ere badauden botere harreman eta beste egiturazko faktoreak ere badira. Antolakuntzatik ere argi dute.

“Azken finean, jaietan ez da gertatzen egunerokoan gertatzen ez denik. Akaso, nabarmen bihurtzen da jendeak “lotsak” galtzen dituenen. Beraz, jai ingurunea eroso denik ezin esan. Hala ere, lagunekin elkartu eta ongi pasatzea beti da errazagoa gizon zuri heterosexual nominadunentzako. Uste dugu hori gizartean horrela izanik, jaietan ere ematen dela. Eta horren eraldaketarako jai batzorde honek dituen aukerak direnak direla”.

Potentziala agerikoa dela uste dute, baina, aldi berean, argi dute aldaketa ez dela antolakuntzatik soilik etorriko, baizik eta gizarte eta eragile guztien arteko eraldaketen ondorio izango dela.

“Uste dugu potentziala duela. Jaiak antolakuntzarako agertoki publiko diren neurrian, herriaren begietan jartzen gaituelako eta horrek eragina duelako herritarren iruditegian beraz, bai. Hala ere, eraldaketa ezin da izan proiektatzen den irudi horretatik hasi. Beharrezkoa du oinarrian egindako lana: hezkuntza, kalean, lagunen artean, etxean... eta horrek emango du emaitza baita jai erduetan ere”.

4.4.3. PUNK OI!-A, NOREN SEHASKA?

Herri mailan identitatea baldintzatzerainoko eszena eta kultur adierazpiderik bada, dudarik gabe, punk eta Oi!-arena da. Musika eta aisia espazio horiekiko identifikazio, gustu edo atxikimendua dena delakoa izanda ere, ezinbestean guztiengan eragina duen errealitate bat izan da historikoki eta izaten jarraitzen du hein handi batean, baita LGTBQ+ komunitatearengan ere.

Balioak, iruditeria, identifikazioa eta bizigarritasuna izan dira galdekatu ditugun kontzeptuak. Lehen ondorioetako bat da musika estilo bakoitzak balio batzuk transmititu eta giro konkretu bat sortzen dutela, askotan ez dena guztientzako ez irisgarria ezta bizigarria ere.

“Indarretik ez dabilen gorputz batentzako ez da habitablia”.

Gainera, punkari lotutako balio transmisio horretan, historikoki izandako izaera apurtzaileaz galdetu dugu eta, eszena gertutik bizi dutenek (eta ez dutenek ere), dudan jartzen dute ea gaur egun esentzia horrek bere horretan irauten duen.

“Ikusten gauen, el punk ya de transgresor, Arrasaten no tenia nada, osea no es antisistema es lo más sistematico, lo que el sistema quiere. Eso es punk? Pa quien?”.

“Osea si eso es el punk, gu ez gare punk, eso es una mierda, no es habitable eso. Quien es y pa quien hace?”.

Punka sistema barruan dagoen uste hori, heteroarauari eta maskulinitateari lotutako irakurketa batetik egiten dute hainbatek, horregatik, historikotasun bat daukaten elkarriketatu horiei, 80ko hamarkadarekin alderatzeko eskatuta, argi esaten dute.

“–Osea uste duzute askoz heteroagoa dala orain punka 80. hamarkadan baino?
–Bai, bai, nik uste zurrundu moduan in dala punka.
–Danok berdin jantzita, danok bardina esaten... *ahí dónde está el punk?*”

Edozein balio eta kultur sistema bezala, punkean ere, transmisio kanal, forma eta partekatze arauak daude. Alegia, nork zeini eta nola transmititzen dio ezagutza eta kultura hori? Eta nori uzten zaio punk eta Oi!aren kultura hartzen? Erakusten? Bere egiten? Aldatzen?

Zehazki, ikerketa honetako subjektuei begira, jakin nahi izan dugu punk eta oi!-aren kultura zenbateraino den irisgarri edo bizigarri zisheteroarautik at dauden gorputzentzat, edo balio eta kultur adierazpenen transmisioan zer nolako sarbide edo irisgarritasuna duten.

Herrian finkatutako kuirpunk banda ezagunenak, oraindik ere, espazioa eta eszenarekiko zailtasunak badaudela adierazten du. Batez ere, beti “neska bakarrak” izatearen sentsazio eta mugiezintasuna errepikatu zaielako. Alegia, zaila dela transmisio katean sartzea ere.

“Da oso konplikaua espazio hau, beti izen da konplikaua guretzat espazio hau”.

“30 talde badaz, gu gara bakarrak ez garenak gizonak. Bueno oin sartu dan taldia... baino bueno hor be, sortu gauen guk kargu bat enkargetan zana ba e... ze klaro hau egon da geldi *pues* zenbat, 20 urte? *No ha entrau aquí ni un puto grupo nuevo*”.

Bizipen eta ezagutza horren guztiaren gainetik, iruditeria, giro eta kultur adierazpena, eszena goi eta behe aldatzeko eta LGTBQ+ ikuspegitik zein ikuspegi feministatik eraldatzeko aukerak eta gogoak ere hor daude.

“Ez dot uste danik kasualidadia, *si es la cuna del punk pues ahora otras cunas habrá que crear, eztakizu?* Ta uste dot bai dala eszena bat, punk, oi!, berdin jat, eszena bat, super gogorra izen dana hemen, ez dau euki, beste gorputz batzuk ez daue euki lekurik, orduen be guk hori bizi izan dogunez ba igual hau bai da erantzun bat horrei. Konzientemente? Ez dakit”.

4.4.4. ZABAL DEZAGUN KIROLA

Kirol arloaren eta LGTBQ+ komunitatearen arteko harremanaz pentsatzen dugun momentuan, ziurrenik, iruditeria kolektiboan bazterkeria, indarkeria, giro LGTBfobikoa eta ikusezintasuna barne biltzen dituen narrazio batekin egingo dugu topo. Hori guztia ere

baldintzatuta dago, ziur asko, kirola esaten dugunean geure iruditeria erabat betetzen duen gizonen futbola etortzen zaigulako burura.

Begirada horrek, ordea, badu errealtatetik ere dezente. Izan ere, sozialki presentzia handiena duen kirola da, eta, bere horretan, maskulinitate hegemonikoaren produkzioan ezinbesteko pieza. Horregatik, ikerketa honetan hainbat dira heteroarautik at dauden gizonen errelato eta bizipenak, kirolarekiko (eta, batez ere, futbolarekiko) errefusa sentitu izan dutenak, indarkeriazko zein homofobiazko praktika, giro eta jarrerak gogorarazten dizkielako. Eta ez futbolean soilik.

“Gizon heterosexualengandik, kirol ekimenetan, komentario homofoboak entzun behar izatea”.

“Mutilen taldeetan adibidez ez da sekula horrelakorik [homosexualik] izan, beraz berria izango litzake”.

Emakume bezala sozializatutako pertsonentzat, ordea, kirol esparru eta taldeak LGTBQ+ pertsona bezala garatu, beste kide batzuk ezagutu, ligatu eta komunitatea sortu zein ahalduentzeko ezinbesteko espazioak izan dira.

Horregatik, uste dugu kirol arloak lanketa berezitu eta konplexu bat merezi duela ikerketa honetatik at, ertz, praktika, indargune eta eraldaketarako gakoak bilatzeko.

Kasu honetan, Arrasaten, lehen pausu bat eman nahi izan dugu. Batetik, kirol klub desberdinek dituzten errealtate, lanketa eta beharrak identifikatu ditugu eta, bestetik, LGTBQ+ pertsonen lehentasunezkoak direla uste duten neurriak jaso ditugu.

Kirol klubei dagokionez, haien artean egitura, praktika eta ibilbide aldetik oso desberdinak diren zortzi klub iritzia jaso dugu. Haien artean oso desberdinak izan arren, jasotako emaitzak oso antzekoak izan dira orokorrean.

Batetik, inongo klub edo kirol ekimenek ez du LGTBQ+ errealtatea lantzeko ekimenik (formakuntza, lanketa, ekimen publiko, sentsibilizazio...) burutu. Hala ere, erdiek haien klub, esparru, jardun edo sortzen den giroa LGTBQ+ pertsonentzat eroso dela uste dute; beste erdiek, batzuetan eroso dela eta beste batzuetan ez iritzi dute.

Batzuen kasuan badago joera erosotasun edo deserosotasun esperientziak arlo pertsonalera mugatzekoa, nahiz jakitun izan egiturazkoa den zerbait dela, eta lanketa mereziko lukeela.

“Hori pertsona bakoitzaren esperientziaren eta ingurune konkretuaren arabera da. Gaur egun, talde askok inklusibitatea eta aniztasuna sustatzen ditugu, eta jarrera positiboa izaten dugu LGTBI kolektiboarekiko. Hala ere, badira oraindik aurreiritziak edo jarrera negatiboak izan ditzaketen pertsonak. Oro har, gero eta talde gehiagok ditugu politika irekiagoak eta laguntza-estrategiak, baina komenigarria izan daiteke lehenik taldearen dinamika eta balioak ezagutzea, ingurune eroso eta segurua izango den ebaluatzeko. Gure klubak hortan darrai eta uste dut bide on batetik goazela”.

Beste batzuen kasuan, berdintasun formalaren formularen jausten dira, zeinak “guztioi berdina” garen eta beraz arazorik ez legokeela esaten duten, nahiz ez duten lanketa berezirik egin, eta ez duten haien talde edo esparruan LGTBIQ+ pertsonarik identifikatu.

“Azkenean, pertsona denek ditugu eskubide berdinak kirolaz disfrutatzen”.

“Denok garelako berdina eta gure klubean errespetuarekin jokatzeko bidea jarraitzea nahi dugulako”.

“Lehenik eta behin pertsonak garelako”.

Harago joanda, badakigu kirola ez dela soilik ariketa fisikoa egiten dutenen jarduerara, izan ere, ikuskizuna ere bada, modu kolektibo eta publikoan bizi eta ospatzen dena sarri. Aurreko iruditeriari jarraituz, honetan ere, gizonen futbol-giroa nagusitzen da eta LGTBIQ+ pertsonen oro har ez dute espazio desiragarri, dibertigarri eta eroso gisa bizi.

Klubek, ordea, haien kirol ikuskizunak LGTBIQ+ pertsonentzat erosoak diren esparru gisa definitzen dituzte, nahiz batzuk kontziente diren batzuetan deserosoak izan daitezkeela “irain homofobikoak eta” daudenean, adibidez.

Edonola ere, gehienek lanketa propio bate egiteko beharra ikusten dute, baita prestutasuna erakutsi ere. Bereziki, formakuntza beharra aipatu da.

“Gure txikiei erakutsi behar zaie bizitzan lasai egoten, nahi dutena izan eta sentitu behar dutela. Eurei laguntzeko klubetako arduradun edo eurekin lanien ibili biher dienak formatu behar dira”.

Bestalde, kirolari lotuta, Arrasateko LGTBIQ+ komunitatearen aldarri nagusiak ondorengoak dira: aldagela inklusiboak sortzea eta trans edota ez bitarrak diren pertsonen errealitateak txertatzen joatea. Kiroldegiaren proiektuaren baitan garatzen ari den neurria da dagoeneko, baina garrantzitsua da, espazioen banaketatik harago, sentsibilizazio eta informazio

kanpainak ere egitea. Izan ere, jendartearen parte handi batek espero ez dituen genero adierazpenak dituzten pertsonak argi diote:

“Aldagelena biolentua da neretzat, baina biolentua da eurentzat”.

4.5. ELKAR IKASIZ, ESPAZIOAK ERAIKIZ

Hezkuntza arloaren errebisio bat

4.5.1. HEZKUNTZA FORMALA

Ohikoa da LGTBIQ+ komunitatearentzat eskola zein eskola garaia modu ez atseginean gogoratu eta bizi izatea, LGTBIfobiak bereziki indar erregulatzailerik handia duen garaia delako, eta, aldi berean, gure izaerak garatu eta lantzen ditugun garaia ere badelako. Horrek gure garapen psikosozialean talka handia suposatu dezake, norbera den hori garatzen doan heinean, zigorra jasotzen baitu izate hutsagatik. Beraz, tamalez, oraindik ezin dugu esan eskolak LGTBIQ+ pertsonentzat espazio seguru eta bizigarriak direnik (bestalde, inorentzat bermatu ezin dezakegun gisan).

Egun, ordea, baditugu indarkeria horiek identifikatu eta aurre egiteko kontzeptualizazio eta protokoloak. Horregatik da hain garrantzitsua, eskolan bizitzen diren indarkeriazko eta jazarpen egoerak LGTBIQ+ pertsonen zuzenduak direnean, Bullying LGTBIfobikoa deitzea. Eskola-jazarpen hori jazarpen mota espezifiko bat da, zeinetan ikasleak arautik kanpo dagoen (egiazkoa zein hautemantakoa izan) orientazio afektibo-sexualagatik, genero identitate edo adierazpenagatik, jazarpena jasotzen duen.

Erasoaren arrazoi nagusia genero identitate, adierazpen edo sexu lehentasunei lotutakoa bada, egiturazkoa den indarkeria baten ondorio dela esan dezakegu eta, horregatik, botere-desoreka argi bat dago eraso jasaten duen pertsonaren eta eraso eragiten dutenen artean. Azken hori garrantzitsua da; izan ere, eskola esparruek, haien betebeharrak hezitzaileetan ere, gizartean egiturazkoak diren indarkeria horiei aurre egiteko mekanismoak eduki behar dituzte. Protokoloez gain, sentsibilizazioa zein identifikaziorako gaitasunak garatu behar dira.

Hori guztia kokatzea berebizikoa da, Arrasateko eskoletan ere LGTBIQ+ ikasleak izan badaudelako eta, elkarriketatu hainbatek, iraganean bada ere, babesgabetasun eta biziraute garai gisa oroitzen dutelako eskola etapa, baita zentroen papera ere.

“Nik gure nauen pasau *desapercibido, que no se me notara*”.

“Zero informazio eta zero babes nauken”.

“Ez dut uste asko aldatuko zanik nire garaitik”.

Babesgabetasun horren atzean, indarkeria eta horren mehatxua gailentzen dira oro har, eta, batez ere, maskulinitate hegemonikotik irtetearen zigorra.

“Txikitan eskolan bai, hitz egiteko modu homofoboa oso tipikoa zen. Esango nuke, nire oroitzapenetan, maskulinitatearen kanonekin bat egiten ez zuten mutilek bereziki jasaten zutela batez ere indarkeria eta bazterkeria mota hori, modu bortitzenean behintzat”.

“Bazterkeria bizi nuen nerabezaroan pluma edukitzeagatik”.

Hala ere, garaiak aldatu direnaren kontzientzia argia da eta, kanpotik, egun, eskolei begiratzen diogunean gazteei beste pentsatzeko modu batzuk aurre suposatzen dizkiegu.

“Eztiela akaso leku erosoak izango, baina aldi berean gazteak jarrera irekiagoa dute edo, iritzi kontrajarriak ditut”.

Hori horrela al da?

Landu dezagun LGBTIfobia

Horregatik, begirada findu eta prebentzio zein lanketarako dauden edo garatu daitezken mekanismo eta erremintak berrikusteko asmoz, herriko bi ikastetxeen esperientzia jaso nahi izan dugu.

Topatu dugun lehen errealitatea, ordea, espresuki lantzen ez den gai bat dela izan da. Ez dago sentsibilitate edo kontzientziaren erabateko absentiarik, hezkidetzari edo bestelako lanketa batzuei lotuta, zeharka eusten baitzaie LGBTIQ+ errealitateei. Baina irakasleek ere ez dute formakuntza berezirik jaso, ez bada Hezkidetza arduradunak jasotako ordu solte batzuk.

Bestalde, egun konkretuen lanketak bai garatzen dira, izan martxoaren 8a, azaroaren 25a edota maiatzaren 17a. Azken egun horrek, LGBTIfobiaren aurkako egunak, aukerak ireki ditu gaira inguratu eta ikasleei informazioa elkar banatzeko.

“Zentratu izan gara beti A25, M8 eta M17an eta horren inguruan ekintzak eta informazioa zabaltzen ikasleei”.

Edozein herritan, eta are gehiago herri hezitzaile ikuspegi batetik, frogatuta dago hezkuntza komunitate osoa interpelatzen duten koordinazio espazio eta praktika bateratuek eraginkortasun handia dutela herri mailako sentsibilizazio eta prebentzioan.

Egia da Arrasaten ere hezkidetza programa bat egon dela urteetan martxan, baina hainbat arrazoi medio (saturazioa, antolakuntza falta, koherentzia falta...), etenda dagoen programa bat dela, hausnarketa prozesu batean baitaude.

“Guk erabaki genuen paroi bat egitia, programa horri dagokionez eta hausnarketa prozesu bat abian jartzia, bueno ba ikusten genuelako hainbat kontutan ez ginala asmatzen ari. Ikastetxiak berak ez geundela inpregnetan, ikasliak bakarrik zeudela jomugan, mutilek jarrera oso erasokorrakin hartzen euiela gaixa, eskolako estrukturak etziela bustitzen, beste txanpinoi bat zala... eta hortan gabiz, hausnarketa prozesu baten, *de etxo*, eztaukou ikastetxiekin programarik martxan, baina bueno, asmuakin bagabiz”.

Horrek, dudarik gabe, aukera paregabea dakar programa berrikusi, koordinazioa indartu eta LGTBIQ+ pertsonen zein hezkidetza eta pedagogia feministetan eraldaketa bat txeratzeko.

Izan ere, aukerak eta aurrekariak egon badaude. Ikastetxe batean gogoratzen dute komun komun inguruko aldaketan, lanketa ikasleek haiek egiteak eta ondoren, berdinen arteko transmisioan zabaltzeak, emaitza onak eman zituela.

“Hasi ginen irakasleen aldetik hori lantzen, eta dana pikutara joan zen, osea buf, izan zen ikasleen aldetik osea retxazo bat... osea ezebez. Eta orduan, esan genien beraiei zerbait bururatzen ete zitzaien eta baietz. Eta orduan gu egongo ginela ba materiala edo behar zuten apoioa emateko, eta hori dana, baina bideratzeko eta ikasleei zabaltzeko beraiek izango zirela guk parte hartu barik. Orduan, lanean hasi ginen elkarrekin hori dana lantzen eta izan zan nik egin dudana proiektu politena. Eske klaro, gu ez ginen joan klaseetara informazio horrekin, joan ziren beraiek eta beraiek sartu ziren geletan, orduan klaro, ikasleen erantzuna oso-oso desberdina izan zen. Onartu zuten, entzun zuten... eta ordutik dauzkagu komun komunak”.

Gainera, berariaz hezkidetza programarik ez badute ere, esan bezala, zeharka eta elkarlanean hainbat lanketa egiten dira: esaterako, EKIN emakumeakekin egiten den bizikidetza lanketa, Daitekerekin egiten zen indarkeria matxistaren prebentzio lanketa edo Sexologia Zerbitzuaren bitartez.

Gainera, badira beste hainbat lanketa, modu integralagoan LGTBIQ+ ikuspegia txertatzea ahalbidetuko luketenak: adibidez, drogen prebentzioan, Eusliderrak programan, AEDrekin egin daitezkeen lanketetan, zineari, kultur elkarrietzeari edo memoria historikoari lotuta.

4.5.2. HEZKUNTZA EZ-FORMALA

Hezkuntza ez-formalaren esparruan, paradoxikoki, LGTBIQ+ gazte eta nerabeentzat espazio seguru, babesezko eta garapenerakoak topatu ohi ditugu. Deigarria izaten da, nerabe berberentzat eskola hain arrotz eta, kasu batzuetan, mingarri bizi izanda, hezkuntza ez-formaleko espazio batzuk arnasmune bilakatzea.

Ikerketa honetan hainbat esperientzia eta bizipen jaso ditugu bi eragile eta hainbat neraberen ahotatik, eta ondorio nagusia izan da Arrasaten ere LGTBIQ+ gazteentzat hezkuntza ez-formaleko espazio batzuk berebiziko garrantzia (izan) dutela.

“Babesleku bezala, tratu oneko leku bezala ikusten ditut leku hauek. Intentzionalidade bat dauelako bertan, holan taldian lanketa eta begirada landu egiten da, eta bai oso modu proaktiboan lan egiten dalako ez permititzeko ez irainik ez... esan nahi dot, badago hor begirada bat zorrotza, esku hartzekoa eta beti errespetua oinarrian dagoen printzipioa da”.

Horrek garrantzia du, batetik, bizitza horietan duen eragin zuzenagatik, baina baita bestelako esparru edota ekimenetarako praktika onen gakoak eman ditzakeelako.

Horregatik, gazteleku, udaleku eta ludotekak kudeatzen dituzten Txatxilipurdirekin, espazio bizigarri horiek sortzeko eta garatzeko faktoreen inguruan arakatzea erabaki genuen, baita garapen horietako mugak identifikatzea ere.

Hezitzaileen lana, gako

LGTBIQ+ ikuspegi batetik espazio batean ematen diren praktika, harreman, lanketa eta bizipenak askeak eta erosoak zergatik diren edo ez galdetuta, guztiek argi izan duten lehen faktorea hezitzaileen papera izan da.

Paper hori bi arlotan sailkatu daiteke: batetik, arlo profesionalari dagokiona, alegia, ezagutza, lanketa, esperientzia eta prestaketa ezinbesteko elementu bezala identifikatzen dira; bestetik, ikusgarritasun, identifikazio eta eredu desberdinak izatearena. Hau da, genero-arauak nolabait hausten dituzten hezitzaileek, horrekin bakarrik ere, lortzen dutela gazte horientzako eredu ikusgarri izatea, eta lanketa konkretu batzuetara beste leku batzuetatik heltzea.

“Hezitzaile talde kokatu eta ahaldundu bat dauela. Hezitzaile eredu asko, adierazpen desberdinekin, eta horrek bai ahalbidetu dauela hurrekin lanketa desberdinak eittia ta hausnartu edo hitz egiterakuan be gauza desberdinen inguruan hitz egitia adibidez, nerekin, ilia rapauta ‘zer zara neska ala mutila?’ Ba bueno horrek bai zabaltzen dotzu bidiak”.

Hori guztia ez da soilik nerabeentzako aberasgarri edo erabilgarria den zerbait, elkarreragiteko gaitasuna duen harremana ere bada, LGTBIQ+ hezitzaileak ere bizipen desberdinak izatera eramaten dituenak.

“Horrek neri zabaldusten beste ate batzuk. Oso inportantia izen zan Txatxilipurdi garai horretan. Txatxilipurdi eta nerabiekin lana egitia, *porke* nauken nerabe pillo bat hartzen ninddutenak erreferente bezela *porke* euzen gatazka berdinen”.

Gainera, hezitzaile horiek ez dute beti gaztelekuko giro edo espazio osoa segurua izatea lortuko, baina haien presentzia hutsak sortzen du segurtasun hori.

“*Osea ya* aurreko espazioa ez zan hain hain segurua, baina behintzat gu, hezitzaileak, bai ginen seguruak haientzat ta nik uste horregatik etorri dila horren bila, eta aurkitu ein daue”.

Izan, hitz egin, ikusi

Beraz, hezitzaile erreferenteak edukitzeak (ez bakarrik) ate batzuk irekitzen ditu elkarrizketa, lanketa edo garapen batzuetara; baita, esaterako, LGTBIQ+ banderen presentziak ere. Halako gauzek garrantzia berezia hartzen dute ikusgarritasunari eta izendapenari lotuta. Alegia, lehen pausua irekitasunez eta askatasunez beste leku batzuetan hitz egin ezin daitezkeen gauzen inguruan aritzea da.

“LGTBI gaiez hitz egiten dogula naturaltasunez eta horregatik da gune segurua”.

Hitz egite horrek zuzenean ahalbidetzen du “izatea” ere. Horregatik gazte askok identifikatzen dute espazio hori “seguru / ez seguru” dikotomian baino “ni neu izan naitekeen” espazio gisa.

“Aniztasun asko dau LGTB kolektibua kontuan hartuta eta danetik hitz egiten da *osea*, egunerokotasunian hitz egiten da ‘*eske me gusta esta, es que me gusta este...*’, ez bitar moduan ere badau pertsona bat ikusten dauena bere burua, eta libre hitz egin leikela, aurreiritzi barik”.

Mugak eta ezinak

Edonola, lanketa eta espazio hauen garapenerako ezinbestekoak diren faktoreen analisisa egin badugu ere, badira oso agerikoak eta azken urteetan indar berezia hartu duten muga eta kontrakotasun faktoreak ere. Nagusiki lau arlotan banatu ditugu.

Mutil nerabeen erreakzionarismoa

Azken urteetan, bereziki identifikatu dute mutil nerabeen partetik gero eta esplizituagoa dela LGBTIfobiaren adierazpena. Eguneroko komentario eta burlez gain, LGBTIQ+ errealitatearekin zerikusirik duen edozein egitasmo, ikur edo aipamenen aurka egiten dute.

“Faktore negatibua dala biolentzia fisikua eta berbala dauela. Ta dau LGTB bandera baina *le echan japos...* Adibidez Maritxutan ein gauen photocall bat, jarri gauen LGTB banderia be fonduen eta *no se querían poner en la foto por que estaba ese bicho, literal. Fobia extrema*”.

Honek, besteak beste, aurrez aipatutako lanketarako espazio libre eta seguruaren nozioa aldatu du azken aldian, eta horren kontzientzia argia dago.

“Lehen zan leku bat loratzeko, ta oin da leku bat lanketa ein biher dana”.

Armairua hor dago

Aipatu bezala, hezitzaile bezala armairutik kanpora egon, genero adierazpen disidentea izan edo arau batzuk haustea, erreferente izateaz gain, hainbat lanketa egiteko erreminta balekoak eta erabilgarriak ere badira. Hala ere, aurreko egoerei jarraika, hainbat dira taldearen arabera gaur egun haien burua “babesteko” beharra ere sentitzen dutenak.

“Bai egixa da super guaya dala hezitzaileak erreferente izetia, baine egixa da justo gaur egun dakoun nerabiekin oso oso zaila dala zu jartzia *como diana*. Nik adibidez, beti izan gura doten zerbait izan da baina *es que no me atrevo*”.

“Ni adibidez transa naz eta *a mi me encantaría* lantzia gauzak eta holan *directamente* ze azkenian askoz erreza da jartzia eredu edo azalpenak direktuak *en plan* ‘neri pasau jat hau’, osea esperientzia pertsonalak askoz be interesantiauak die, baina *eske ni de palo*”.

Gurasoak

Azkenik, eta, batez ere, Ludotekei lotuta, familien presentzia eta esku-hartzea dago. Batzuetan, familiek ideia konkretu batzuk dituzte haien seme-alabek jaso behar lituzketen mezuen eta jaso behar ez lituzketen mezuen inguruan. Hainbat izan dira LGTBIQ+ gaien inguruan jasotako adierazpen edo kexak; sarri, hezitzaileek surrealismo puntu batekin bizi izan dituzte, adibidez, ortzadar bat berau kolokan jartzean.

Gatazka edo talka horien aurrean, ikusten dute batetik ahaldunduta egotea ezinbestekoa dela eta, bestalde, babes eta oinarri batzuk behar dituztela atzetik.

“Gurasuekin edo zaz oso ahaldunduta eta sinisten dozu asko zure buruanga eta zure lan hezitzaile horretan edo super azkar txikitzen gara eta segun zein konbersaziñoren aurrarian, gurasuen aurrarian ez gara izan gai edo ez dakit, aurre egiteko horri”.

Izan ere, horren atzean, ideia konkretu batzuen gaineko duda edo kexa egoteaz gain, hezitzaile bezala egiten den lana bera ere dudatan jartzera iristen da.

“Eta zure lana zalantzan jartzen, ez? Ta zegatik gañera, gehixenak zer gara ba, ez? Osea, *porque seguramente* beste mutil batzuei, eztaikit nola esan, beste mutil bati eztutzezu jarriko zalantzan gauza asko, baina gai hauek lantzerakuan bai”.

Denbora eta baliabide falta

Azkenik, beste hezkuntzako edozein arlotan bezala, baliabide zein denbora falta da edozein lanketa egiteko muga nagusia. Argi dute ratio eta denborek baldintzatzen dutela haien jarduna, are gehiago aurrez aipatu ditugun muga horiek kontutan hartuta.

“Askotan zelan dan oso aktibua, talde honek eskatzen dotzu atentziño haundixa, talde honek azkenian benetako hausnarketak... benetako gauza inportantietarako eztauela denborarik. Osea nik ezin dot egon konbersaziño bat eukitzen nerabe batekin sobre LGTBIQ+ edo edozein gai inportante, *si me están reventando la puerta o lo que sea*”.

Eta, denbora eta baliabide falta horrek, espazioaren bizigarritasunean eragiten duela zuzen-zuzenean.

“Ya ez da eztauela gunee segururik, eztaue une segururik”.

4.5.3. UNIBERTSITATEA

Azkenik, ezinbestean Arrasate ezaugarritzen duen hezkuntza esparruari begira jarri gara; izan ere, hainbat izan dira, arlo horretan egon gabe, herrian LGTBIQ+ pertsonentzako espazio seguru, eroso edo garapenekoak izendatzeko eskatuta, unibertsitatea aipatu dutenak.

“Ulertzen dot gazte girokuak dien lekuak diala eta bueno, bertan dazen pertsonak mentalidade irekixagua daukiela eta hori segurtasun puntu gisa ikusten dotela”.

Baina hala al da? Horretarako bertan ikasi eta Arrasaten bizitza egiten duen profilaren iritzia jaso nahi izan dugu. Eta lehenengo unean, aurreko ustea konfirmatu digute.

“HUHEZiko giroa, orokorrean, nahiko irekia dela esango nuke. Ez dago komunitate LGTBIQ+ari lotutako talde antolaturik momentuz, baina bai ikusten da jende askok baduela zaintza handia gaiarekiko”.

Gainera, herriko beste kasu batzuetan ikusi dugun bezala, espazio politizatu, militantzia eta kolektibitateak garrantzia berezia izan du ahalduntzeko eta LGTBIQ+ pertsona bezala espazio eta testuinguru bat bizitzeko orduan, eta hori unibertsitateak ematen du.

“Horregatik, niretzat lau urtetan Karranpak taldea oso garrantzitsua izan da, HUHEZiko gazte feminista taldea. Saretzeko lekua izateaz gain, bertan, fakultate desberdinetako ikasleok elkarlanean aritzen gara unibertsitateko espazioetan feminismoa, sexualitatea, gorputzak eta identitate disidenteak lantzen, eta horrek nire bizipenak kolektiboki kokatzeko eta partekatzeak aukera ematen dit”.

Unibertsitateko giroa eta Arrasatekoa alderatzeko eskatuta ere, askatasun eta erosotasuna nabaria da, nahiz desberdintasun batzuk aipatzen diren.

“Arrasate oso herri askea dela uste dut. Baina espazio batzuetan oraindik nabaritzen da heteronormatibitatea eta badaude espazio batzuk ez ditudanak oraindik neureak egin. Unibertsitatean badago giro bat non zure sexualitatea edo identitatea ez diren gai arraro edo tabuak. Bai uste dut naturaltasun handiz bizi dugula guztia”.

Izan ere, askatasun horren barruan, herriko LGTBIQ+ eskaintza eta programazioaren jakitun dira, baina azpimarratzen da akaso mugatua dela hori bera ere.

“Badaude gauza interesgarriak, baina mugatuak ere badira. Eragile desberdinek antolatutako kontzertuak, tailerrak edo hitzaldiak adibidez, baina hala ere uste dut ekintza puntualak direla eta ez direla nahikoak”.

Edo, beste era batera esanda, gustukoak, seguruak edo erosoak diren espazioak badaudela, baina ez direla ez guztiak ezta asko ere.

“Hala ere, ez dut askoz espazio gehiago ezagutzen horrelako ezaugarriak dituztenak. Eta uste dut horrek ere zer pentsatua ematen duela, espazio gehiago eraikitzea eta izendatzea beharrezkoa dela iruditzen zait”.

Azkenik, ikusgarritasunari lotuta, espazio propioen beharra azpimarratu eta hausnarketarako bidea irekita geratzen da.

“Ez nuke esango herri zaila denik, baina ezta guztiz eroso denik ere. Askotan ‘neutral’ modura bizi da LGTBQ+ komunitatea: ez dugu eraso zuzenik jasaten, baina ezta ikusgarritasun handirik ere. Hala ere, Arrasaten aldaketa hori ari da ematen eta uste dut pixkanaka gero eta espazio gehiago direla eraikitzen”.

4.6. ARMAIRURIK GABEKO LANTOKIAK

Lan-arloaren behaketa bat

Ikerketa honetan garrantzia berezia eman nahi izan diogu lan-arloari, herriaren nolakotasunean identitate handia ematen dion kultura kooperatibista baitago. Bestalde, lan-arloa bereziki ikertua izan da LGTBIQ+ ikuspegi batetik, betiere segurtasun, eraso, edota protokoloei begira.

Lan-arloak badu bereizgarri bat, ikerketa guztiek azpimarratzen dutena: gaur egun, LGTBIQ+ pertsonak armairuan mantentzen edo bertara itzultzen diren espazio nagusia da lantokia. Alegia, lan-arloan ez ditugula gure lehentasun sexual, identitate edo adierazpenak aske bizitzen.

Esan gabe doa, norberaren bizitza pertsonala eta intimitaterako eskubidea dagoela edozein pertsonarengan, baina zergatik ez dugu lan esparrua seguru gisa bizitzen zehazki LGTBIQ+ pertsonak? Zerikusirik al du bizitza “intimo” eta “pertsonalarekin” edo beste irakurketa batzuk egin ditzakegu? Bestela esanda, lankide heterosexualek bizipen bera al dute haien intimitate eta bizitzekiko?

Hori oinarri hartuta, bi ikuspegitatik behatu nahi izan dugu lan-arloa. Batetik, Arrasateko LGTBIQ+ biztanleek espazio hori nola bizitzen duten jakitea eta, bestetik, ikuspegi eta praktika kooperatibista batetik, LGTBIQ+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko egiten ari diren ekimen eta neurriak ezagutzea.

4.6.1. ARMAIRURA ITZULERA

Elkarrizketatuei, erantzunak ez baldintzatu asmoz, ez diegu zuzenean haien lan-arlo edo lanpostuen inguruan galdetu. Normalean, halakoetan, gehiago kostatzen baita deserosotasun, ikusezintasun edo jazarpen egoerak identifikatzea.

Ordea, elkarrizketatuei galdetu diegunean ea bizitzako zein une edo lekutan itzultzen diren armairura, hau da, noiz ezkutatzen duten haien identitate, bizitza, adierazpen edo dena delakoa, erakusgarria da ia guztiek aho batez lan-arloa adierazi izana.

“Lan munduan. Enpresarekin eta lankideekin”.

Izan ere, lanpostua eta arloa dena delakoa izanda ere, ikusten dugu babestu beharreko informazio bat bezala bizitzen dutela askok, edota azalpenak eman beharreko informazio deseroso bat balitz bezala.

“Esplikaziñuak ebitatzeko momentuan. Adibidez egunerokotasunian ikusi biher ez dozun lankideren batekin (presentzialki ezautzen ez dozuna)”.

“Lanean eta familian batzutan, talde handitan... ulertuko ez gaituztela edota gure burua justifikatu beharko dugula sentitzen dugunetan oro har.”

Gainera, bizitzako beste aroletan bezala, heterosexualitate presuntzio bat ere ematen da.

“Pertsona berriekin, bereziki lanean. Nire kasuan ia urtero lantokia aldatzen didate eta pertsona berriekin erlazionatzean nire bikotea emakume bat dela suposatzen dute”.

Hala ere, bada lan-arloaren, baina, batez ere, ahalduntze pertsonal eta politikoaren arabera, esparru hau borrokarako edo ikusgarritasunerako espazio bezala aldarrikatzen duenik ere.

“Iraganean gertatu izan zait lan arloan edo harreman instrumentaletan (banketxean, dendetan, lagunarte berri batean, bilera batean...) bizitza sozialeko momentu jakinetan egoera batek armairuan sartzera “behartu” zaitzake. Gaur egun horren aurkako militantzia egiten dudan arren, sarri gertatzen dela uste dut”.

4.6.2. ZER EGIN DAITEKE ETA NONDIK?

Esan bezala, bizipen horiek lan merkatuko sektore eta postu desberdinetan ematen badira ere, ikerketa honetan, garrantzia berezia eman diogu kulturalki hain errotuta dauden kooperatibei begiratzeari. Izan ere, egitura propioen nolakotasunez gain, historikoki arlo sozialei begira egindako lanen aurrekariak ere interesekoak dira, hain zuzen, aurrera begira egin beharreko LGTBIQ+ lanketei dagokienez.

Zehazki Arrasaten errotutako bi kooperatibarekin (horietako bat kooperatiba desberdinez osatua) solasteko aukera izan dugu. Bi kooperatiba horiek aukeratzeko arrazoi nagusiak honakoak izan dira: batetik, bestelako lanketa eta planak inplementatutako esparru bat zelako (batik bat, euskara eta berdintasun planak) eta, bestetik, beste kooperatibak plan horiek inplementatzen eskarmentua duelako.

Bi interes genituen: orain artean egindako bestelako lanketa, plan eta diagnostikoek LGTBIQ+ errealitateez informaziorik ematen ote zuten jakitea, eta lege aldaketarekin aurrera begirako zein asmo zituzten jakitea.

LGTBIQ+ lanketa eta gaien inguruan galdetuta, ez da errealitate arrotz bat, presentzia du, nahiz oraindik lanketak egiteke daudenaren jakitun diren eta kontzientziazatuta dauden.

“Gaixe hor dau, mahai gainien dau”.

“Baine momentu honetan bai esango neuke kooperatibakide bezela gutxienez, hau lantzeko behar bat edo kontzientzia bat hartzen bagoiezela edo momentu horretan gazela”.

Gainera, aurrez egindako berdintasun plan eta lanketatan jada ikuspegi hau txertatzen hasia zen, baita ondorio minimo batzuk ateratzen ere, batik bat enpresetako LGTBIQ+ langileen errealitatea ezagutu eta bizipen eta beharrak jasotzen hasteko. Esaterako, berdintasun planen baitako galdetegietan dagoeneko galdetzen da ea jazarpenik jaso izan duten azken urteetan kolektibokoak izateagatik.

“Hala ta guztiz be, egixe da aurten ein dittugun diagnostiko ta planetan, guk be gure enpresan esaten gaela, bueno LGTBI legie argitaratu da, ondiok garapena eztau, baine behintzet galdera batzuk eitten hasiko gara berdintasun diagnostiko honein marko edo bueno aitzaki horrekin... baine horraino”.

Erantzunetan batik bat gizonezkoen testigantzak jasotzen dituzte, sektore maskulinizatua delako. Hala ere, aipatzen dute gehienek ez dituztela halakoak identifikatzen.

“Protokolotan eta, ya aspaldi txertatzen genbitzen LGTBIQ kolektibui zuzendutako jazarpenak generoan oinarritutako jazarpenen barruan [...] oin legia etorri dala, ya jazarpen mota bezela bai identitate sexuala, bai orientazio sexualai, ya beste entidade bat emoten dutsau protokolotan”.

Interesgarria da beste berdintasun lanketak eta kooperatibako kultura aipatzea, hainbat urte direlako lanketa horiek garatzen dabiltzala eta horrek alde batetik beste lanketetarako bidea irekitzen badu ere, kontziente dira karga bezala ere bizi daitekeela LGTBIQ+ lanketak egiteko beharra.

“Egixe da gure kooperatibetako kulturari badaukogule hola barruraino sartute, gurien berdintasuna bermatuta dauen kontzeptu bat dala, kulturalki esan nahiot. Orduen egixe da igual genero berdintasun planekin eta diagnostikuek eitten ontxe abiatu garela, [...] eta bai gertatu jakuna da ondiok genero berdintasunaren logikan jartzen kostata goietzen neurrixen,

badoialako markua zabaltzen, baina LGBTBIkin ‘hau bebai oin?’ Aurrekue ez dogu ta menperatu’ eta igual realidade nahasi baten bizi garela momentu hontan”.

Ez da kasualitatea, hala ere, beste plan eta lanketetan eskarmentua izatea eta, adibidez, LGBTBIQ+ planak egitea beharrezkoa dela ulertarazteko argudio hauek garatu izana.

“Guk euskera normalizatzeko konpromisoari be urtietan eusten dutsau baina kolektibuen zati handi bati galdetu ezkeru hemen hizkuntza aukera bermatuta dauela, esango leuke baietz, eta hori ez da egia, bestela euskera planak ya ez genittuzke eukiko 30 urte ta gero, ez? Orduen antzekotasuna badauke, e?”.

4.6.3. LEGEA AKUILU

Enpresetan LGBTBIQ+ lanketak egiteko borondatea badagoela uste dute, edota, kasu batzuetan, betebeharrak hutsa. Alegia, 2024ko legeaz geroztik 50 langile baino gehiago dituzten enpresek LGBTBI Berdintasun Plana derrigorrez egin beharko dute. Derrigortasun horretatik harago, baina, badago lanketa hauek egite hutsak ekar ditzakeen onuren kontzientzia: esaterako, lantokiko giroa hobetu edota pertsona batzuk eroso eta askeago egotea ahalbidetzea.

Planak zenbait neurri eta baliabide izan behar ditu: indarkeria edo jazarpenaren aurkako protokoloa, LGBTBIQ+ pertsonen aurka izan litezkeen egoerak ekiditeko; enpresan aniztasuna eta errespetua sustatzeko estrategiak; langile berrien aukeraketa prozesuan arrazoi objektiboak kontuan izatea; sentsibilizazioa eta formakuntza sustatzea -baita erabiltzen den lengoaiari buruz ere-; LGBTBIQ+ pertsonen kontratu indarkeria edo diskriminazioa zigortzeko pautak izatea; protokoloa langileen ordezkariekin adostea; gainontzeko langileek dituzten baimen berak izatea; eta Plana lau urterako balizkoa izatea.

Arrasateko errealitateari begira, bildutako bi kooperatibak baldintza horien barruan sartuko lirateke, baina argi dute ez datozela hutsetik, berdintasun planen garapenak jada bide bat ireki dielako, bai kooperatiban bertan egindako lanean, baita planak garatzen izandako eskarmentuan ere.

“Hori da beste aldagai bat guri lanketa guzti honetan asko eztuskune laguntzen, ez? Egixe da legiek neurri baten behartzen gaituela, bai, ta behartze horrek fortzatze gaituela urratsak

emuten fatera, baine aldi berien kooperatiben errealidade hori lege markoak ez dau kontutan hartzen eta ez dau kontenpletan eta hor sortzen da distorsiño bat...”.

“Trabatzen gare asko legiai erantzuteko behar horretan eta ez hainbeste benetan barruko lanketetan”.

4.7. ETA BITARTEAN, ZERTAN ARI GARA?

LGTBIQ+ antolakuntza eta erreferentzialtasun sareak

Diagnostiko honen eraketak iraun duen hilabeteetan, Arrasateko herrian hainbat arlotan LGBTBIQ+ analisi bat egitea izan da helburua. Bide hori guztia, ordea, ez dugu bakarrik abiatu. Hain zuzen ere, jada Arrasaten zisheteroarautik at edo horren kontra lanean diharduten mugimendu eta espazioak izan ditugu bidelagun.

Ikerketaren amaieran, leku berezia egin nahi izan diegu, batetik, egindako eta egiten duten lana balioan jartzeko eta, bestetik, aurrera begira egiteke dagoen horretan argia jar dezaten. Horregatik, Morbor, Mugimendu Feminista eta Emakumeen Txokoaren hitzekin amaitu nahi dugu ibilbide hau, duten zilegitasuna eman ez eta esker ona itzuliz.

4.7.1. HEMEN LGBTBIQ+ MUGIMENDU BAT DAGO

Edozein herritako LGBTBIQ+ errealitateak aztertzerako orduan, ezinbesteko aliatua izaten da bertako LGBTBIQ+ edo transmaribibollo mugimendua. Sarri, haien eskutik egiten dugu bidea eta haiek izaten dira berriemaileak bilatu, gakoak eman, espazioak ireki edota korapiloak desegiten laguntzen digutenak.

Tamalez, mugimendu antolatu bat ez da herri guztietan dagoen errealitatea, baina Arrasaten, berebiziko garrantzia izan du Morborrek egindako bide laguntzak.

Morbor Kitzikari izandakoaren prozesuaren ostean sortutako taldea da. Ia talde guztiek bezala, parte-hartzaileen kopuruetan gorabeherak izan ditu, baina egun, nahiko egonkortuta dago eta argi dute nondik eta zer egin nahi duten.

Guretzako, interes bereziko izaten da mugimendu edo LGBTBIQ+ militantziako parte izateak, herri mailan, kolektiboki zein pertsonalki nola eragiten duen ikustea, eta horrek herri bateko bizigarritasunean eragina ote duen edo ez arakatzea.

Kideek, haientzat taldeak zer esan nahi duen galdetuta, politizazio, zaintza, eraldaketa eta halako hitzak erabiltzen dituzte, baina, pixkanaka sakontzen joanda, beste pisu bat hartzen duten esanak ere azaldu dira, esaterako “ni izateko askegunea” edo “herrian geratzeko arrazoa”. Horietan sakondu nahi izan dugu.

“Izan da nere marika izaera desatatzeko kriston modu bat, ze ni bere egunian Kitzikari sortu arte estaba en mi casa en mi armario pensando que iba a llevar una doble vida bizi guztian... eta bai izan zan askapenerako modu bat”.

“Bai izan da askapenerako gune bat eta herrian bertan geratzekua, ta denbora honetan be izan dala gauza bat inportantia neretzat hamen itxia hau ta ez joatia Gasteizera edo Donostira edo...”.

Ikusi dezakegu, beraz, militantziak sarri ez duela kanpora begira eragiteko bakarri balio, baizik eta garapen pertsonal zein kolektiboan eragin zuzena duela. Hala ere, haiek kanpotik nola ikusten ote dituzten galdetuta, batetik, sentitzen dute jendeak (jende politizatuak behintzat), kontuan hartzen dituela, baina baita, bestetik, jende askok ez duela haien existentziaren berri ere.

Beste susmo bat ere badute: esparru militante horretatik ere, akaso, batzuek, ez dituztela hain serio hartuko.

“Uste dot jentia ikusten gaittuela *komo* algo ez-formala, ta hori super lotuta herriko zurruntasun horrekin militantzia dauela super ‘modu militante baten militatu behar da’ eta guk apurtzen dogu justu horrekin, denboretan, ereduetan...”.

Beste eragileei galdetuta, ordea, jasotakoa kontrakoa da, bereziki balioan jartzen dute Morborren papera eta lana, baita elkarlanerako prestutasuna ere (jakitun, askotan, denera iristea zaila dela).

“Ya egotie mugimentu bat artikulaua edo kolektibo bat, beti emuten dutsu aukera eurekin kontrasterako, elkarlanerako...”.

“Eta nik bai ikusten dut aldea dagoela daudenetik hor, guri lagungarria zaigu eta eurekin gauzak kontrastatzeko inkulso edo elkarlanerako aukerak ematen dituelako... herrian egotia holako kolektibo bat nik uste ezinbestekoa dala”.

Azkenik, Morborren nolakotasun bati eutsi nahi izan genion, herri mailako irakurketan interesezkoa zaigun bestelako elementu bat ikertzeko baliogarria zena: Morborren jardun politikoa euskaraz egiten da, eta jakin nahi genuen, zer nolako (auto)pertzepzioa dagoen euskara eta LGTBIQ+ mugimenduaren artean. Harremanik ote dagoen, hautu bat izan den, logikaz gertatu den...

Sorrerari lotuta, hasieratik hala izan zen zerbait dela oroitzen dute, haien hizkuntza ohiturei jarraiki hala sortua.

“Morbor sortu gauenien, ba euskaraz sortu zan, ba hasieratik sortu gauen euskaraz, ba aurretik lagunak gitzelako eta lagun horreik be gune euskaldunetatik eta gune euskaltzalieta elkartu ginelako”.

Herriko euskalgintzako kideei galdetuta, ordea, badago politizazio eta hausnarketa bat horren atzean, zapalkuntzen arteko identifikazioari lotua, hain zuzen.

“Nik uste dot sentitzen dogula euskarak bizi dauela zapalkuntza bat kolektiboko kide gisa be badaukoguna ez? Ba hortik dauela identifikaziño hori, *komo* lotura hori. Nik hola bizi izan dot ta nere inguruko askok bebai”.

Gainera, askok identifikatzen dute aldaketa bat eman dela LGTBIQ+ mugimenduaren hizkuntza lehentasun eta praktketan; alegia, historikoki, mugimendua erdaldun gisa identifikatua izan dela, eta orain bide bat egin dela.

“Nik ezagutu dotena euskalduna etzan, beste garai bat zan, baina ez euen sintonia hori, ze nik uste zapalkuntzen arteko sintonia ta zera hori gehixau zala irakurketa politiko bat ta ez hainbeste bizipenetatik eta horrek eraman gaittuela errealizmatzera gure pentsamendutan”.

Are gehiago, LGTBIQ+ mugimendu euskaldun bat izateak euskaldunak LGTBIQ+ errealitateetara eta LGTBIQ+ pertsonak euskarara inguratzeko bideak ere badira.

“Bai sentitzen dot, ta nire kasua da igual, espazio seguruetara inguratzeko [LGTBI+ pertsonok] euskarara hurbildu garela asko, gehiau ondio, ze ikusi dogu, bertan ikusi dogula gure izaera ahal dala onartu edo eztaikit”.

4.7.2. MUGIMENDU FEMINISTAREN ERREFERENTZIALITASUNA

Mugimendu Feminista bide honetan (eta historikoki) LGTBIQ+ mugimenduaren alboan egon, existitu eta elkar busti izan duen mugimendua da dudarik gabe. Ikerketa honetan ere, ezinbestekoa izan da elkarlana eta erreferentzialtasuna.

Izan ere, lehenengo aipamenak elkarriketatuengandik jaso ditugu. Azken urtean egindako hitzaldi edo ekimenak oroitzen dituzte, besteak beste trans errealitateen ingurukoak.

Arrasaten Mugimendu Feministak ere badu ibilbide historikoa eta bide horretan aliantzak ezinbestekoak izan dira (batzuk iraunkorrak, beste batzuk momentukoak). Edonola, herrian duen presentzia nabarmena da, izan agenda feministan ohikoak diren egunetan (martxoak 8,

azaroak 25, eraiketa matxisten aurkako Mundu Martxaren protokoloa...) edota beste mugimendu edo ospakizunetan duen presentziarekin (ekainak 28, Txosna batzordea, Sahararen aldeko mugimendua, Euskaraldia, Talo postua, Emakume artisauen azoka, Emakumeen Txokoa, ikastetxeetan, Sarerekin...).

Ez da kasualitatea, beraz, elkarrizketatutako LGTBQ+ pertsonetako askok arazo, eraso edo babesa behar balu nora joko ote lukeen galdetuta, mugimendu feminista aipatu izana.

“Mugimendu feministara edo Emakumeen Txokora jungo nintzake”.

“Si me pasa cualquier cosa pues imagino que iría a donde las feministas, supongo, no?”.

Eta ez hori bakarrik, zuzenean erreferenteen inguruan galdetuta, hainbat dira, Morbor eta Emakumeen Txokoarekin batera, zuzenean Mugimendu Feminista aipatzen dutenak.

“Morbor, feminismo eta transfeminismoaren bueltan lanean ibilitako kolektiboak...”.

“El grupo feminista de Arrasate”.

Hori interesgarria da, Mugimendu Feministaren autopertzepzioarekin alderatzen badugu, soilik oso politizaturik dagoen jendearentzako espazio seguru edo gertuko bezala identifikatzen baitute haien mugimendua.

Horregatik, balioan jarri nahi dugu lanketa berezirik egin ez izanaren sentsazioa gailentzen bada ere, urteetan egoteak eta egindako lanak jende askoren iruditerian jartzen duela mugimendua, eta ez hori bakarrik, errekurso bezala ere irakurtzen dela.

4.7.3. EMAKUME TXOKOA

Azkenik, ibilbide eta erreferentzialtasunari lotuta ezinbestean azaldu den espazio eta zerbitzua da Emakume Txokoarena. Izandako 20 urteko ibilbideari begiratuta, ez da harritzekoa. Izan ere, iaz bertan, bi hamarkada hauen ibilbidea jasotzen zuen erakusketa bat egin zutenean jabetu ziren, urte hauetan denetan, modu batera edo bestera, LGTBQ+ gaiak beti presentzia izan dutela.

“Bai konturatu ginen, egiten genitun gauzak hasiera-hasieratik, zineklubak, zine zikloak... Zinegoak hasi aurretik hasiak ginen gu gure kasara gauzak egiten, baina gehio hori sensibilizazio

ikuspegi batetik, ez izan dugulako eskaera kolektibo edo pertsonalik baina gure lanean bai izan da lan lerro bat”.

“Baina egixa da, erakusketak berak argi itxi zauela lan ildo hori zelabait, nahiz eta ez esplizitatu, nahiz eta ez izan konsziente, bai egon dala beti hor”.

Honek guztiak, aurretik aipatu gisan, LGTBQ+ pertsonentzako erreferentziazko leku bat bilakatu du ezinbestean, nahiz, kurioa ere baden, erreferentzialtasuna bai, baina sarri, espazio eta eskaintzen erabilerarik ez duten egiten kolektiboko kide askok. Emakume Txokoan ere horren jakitun dira, une konkretuetatik at presentzia gutxiago izaten dela.

“Momento batzutan, Zinegoaken bueltan igual, edo hitzaldiren batean igual bailarako LGTB jendea? Edo ume transen gurasoren bat... Baina gehien bat Zinegoaken bueltan”.

“Morbor dagoenetik igual zabaldu da”.

Horrek zuzenean dakar Arrasateko Emakume Txokoarena eskusiboki ez den eztabaida bat, alegia, subjektuaren zabaltzearen eztabaida. Izan ere, Emakume Txokoan, hitzaldiak eta abar herritar orori irekiak dira, baina, esaterako jabekuntza eskola “emakumeentzako” bezala jasota dago. Nahiz eta sarri asteriskoaren teknika eta abar erabili izan den, argi dute modu zaindu, patxadazko eta adostuan eman beharreko eztabaida dela hau.

Edonola ere, argi dago, LGTBQ+ politikari dagokienez, aholkularitzan edo nora jo pentsatuta, Emakume Txokoak lortua duela erreferentzialtasun eta irekitasun hori.

5. AURRERA EGITEKO BIDEAK

Ekintza-plana diseinatzeko norabideak

Prozesu hau guztia eta gero, Arrasateri begiratzeko prisma aldaketa planteatuta, ahots desberdin, behar, korapilo, hutsune eta nahiak identifikatuta, aurrera begira hartu eta aplikatu daitezkeen neurrien diseinuan murgiltzea geratzen da.

Horregatik, ekintza-plana garatzeko norabidea eta bidea markatu dezaketen sei arlo eta behar nagusi identifikatu ditugu, LGTBIQ+ pertsonentzat ez ezik, herritar guztientzat Arrasate bizigarriago bat eraikitzeke baliagarri izango direnak.

1. IKUSGARRITASUN ETA ERREFERENTZIALITASUNA
1.1. LGTBIQ+ memoria jaso eta zabaltzea
Herrian dauden bizipen, istorio eta pertsonen narratibak jaso eta memoria historikoaren baitan biltzea.
1.2. Ikusgarritasuna
Kale iruditerian LGTBIQ+ errealitateek presentzia izatea.
Herriaren espazio publikoaren nozioa auzoetara eta auzoetatik pentsatu eta LGTBIQ+ errealitateak ikusaraztea.

2. KULTURA GUZTIENTZAT
2.1. LGTBIQ+ programazio propioa indartu
Aisialdi seguru eta heteroarautik at doan zirkuitua sortu eta sustatzeko kultur eta aisialdi eskaintza sustatzea.
2.2. Festak
Festetan LGTBIQ+ komunitatearen behar eta desiretara egokituko den eskaintza egitea.
Jaietako jantzien hausnarketa egitea, kolektiboa LGTBIQ+ ikuspegia txertatuz.
2.3. Kultur transmisioa eta eraldaketa
Herrian garrantzia berezia duten kultur adierazpide eta ondarean heteroarautik at dauden gorputzen sarbidea sustatzea, jakintza transmititu eta errekurtsioak izan ditzaten bultzatzea.


3. KIROLA ERALDAKETARAKO GAKO
3.1. Kirol klubak
Klubekin sentsibilizazio lan eta formakuntza saioak egitea.
3.2. Kirol erakustaldiak
Kirol erakustaldietan LGTBIfobia adierazpen eta jarrerak mugatzea.
3.3. Kirol instalazioak
Kirol instalazioetako aldagelen antolakuntza berrikusi eta berrantolatzea.

4. HEZKUNTZA
4.1. Hezkidetza Mahaia eta programazioaren berrikuspena
Eskola bakoitzaren hezkidetza eta LGTBIQ+ lanketak berrikustea eta bi eskolen zein beste eragile hezkidetzailleekin koordinatzea.
Kanpo formakuntzak berrikustea eta berrantolatzea.
Aholkularitza zerbitzua izatea irakasle eta zentroentzat.
4.2. Hezkuntza ez-formala indartu
Egiten diren lanketa eta esku-hartzeak balioan jartzea.
LGTBIQ+ lanketa berezituak egiteko errekurtsoak ahalbidetzea.

5. LAN-ARLOA
5.1. LGTBIQ+ Planak
Herrian kokatutako enpresei LGTBIQ+ berdintasun Planak egitea sustatu eta aholkatzea.
5.2. Lantoki seguruak
Lanpostu eta zerbitzu publikoetan LGTBIQ+ ikuspegitik lantoki aske eta osasuntsuen sentsibilizazioa egitea.

6. MUGIMENDU ETA ESPAZIOEN KOORDINAZIOA
6.1. Koordinazioa
LGTBIQ+ gaien bueltan mugimendu sozialen koordinazioa sustatzea.
6.2. LGTBIQ+ aholkularitza
Herritarrentzat LGTBIQ+ aholkularitza zerbitzua indartzea.





Arrasate
ATE BERRIAK ZABALDUZ



**emakume
txokoa**
jabetu eta eragin



eihera